

PSIKOLOGIA

Saioa ODERIZ ZUBIETA

**ESKOLA ETA HAURREN
BABESGABETASUNA**

TFG/GBL 2020

upna

Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

**Grado en Maestro de Educación Infantil /
Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua**

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua
Grado en Maestro en Educación Infantil

Gradu Bukaerako Lana
Trabajo Fin de Grado

ESKOLA ETA HAURREN
BABESGABETASUNA

Saioa ODERIZ ZUBIETA

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

Ikaslea / Estudiante

Saioa ODERIZ ZUBIETA

Izenburua / Título

Eskola eta haurren babesgabetasuna

Gradu / Grado

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Infantil

Ikastegia / Centro

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

Zuzendaria / Director-a

Itziar IRAZABAL ZUAZUA

Saila / Departamento

Osasun Zientzien Saila / Departamento de Ciencias de la Salud

Ikasturte akademikoa / Curso académico

2019/2020

Seihilekoa / Semestre

Udaberria / Primavera

Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapituluan hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3854/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3854/2007 Aginduaren arabera, Haur Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduak ikasleek eskola praktikan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituenak. Azkenik, ECI/3854/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3854/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakuts dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Haur Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako modulua/ak haurraren garapena kontutan hartuta, dituen beharrak ezagutzeko bidea eman digu. Gizabanakoaren oinarri

psikologikoetatik abiatuta, lan honetan zehar adingabeen beharrak modu egokian asetzearen garrantzia azpimarratzeko aukera izan dugu. Hau da lanaren helburu nagusietako bat, tratu onaren bidez, umeen beharrak asetzea.

Didaktika eta diziplinako moduluan, hezkuntza motaren inguruan jakintza desberdinak eskuratzeko aukera izan dugu. Izan ere, lanean islatzen den bezala, umeei txikitatik jasotzen duten hezkuntza, eragin handia du beren etorkizunean baita zailtasunetan, gaitasunetan eta jarreran ere.

Halaber, Practicum moduluak, benetako esperientziaz betetako ikaskuntza eskuratzeko aukera eman digu. Practicumei esker, irakasle lana ezagutu eta Haur Hezkuntza eta Pedagogia Terapeutiko munduarekin lehen kontaktua izateko aukera izan dugu. Gainera, umeei gertuko esperientzia izatea lan hau egitearen arrazoi bat da; izan ere, nahiz eta babesgabetasun kasu bat ezagutzeko aukera ez izan, umeei entzutearen, ulertzearen, errespetatzearen eta bere beharrei erantzun egokia ematearen garrantzia baieztatzei aukera eman digu.

Beste alde batetik, ECI/3854/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, bi elean idatziko dira lanaren “Sarrera / Introducción” “Justifikazioa / Justificación” “Helburuak / Objetivos” eta “Ondorioak eta galdera irekiak / Conclusiones y cuestiones abiertas” atalak, baita hurrengo ataleko derrigorrezko laburpena ere.

Laburpena

Haurren babesgabetasuna, oraindik askorentzat ezezaguna den errealitate bat da. Beraz, larritasun handiko zerbait denez, jarduteko protokolo bati jarraituz, lehenbailehen heldu behar zaio. Haurren babesgabetasun-egoerak, gizarteko maila guztietan aurki daitezke; horregatik, irakasleak eta eskolak, haurren bizitzan jokatzeko duten paperaren ondorioz, egoera horiek hautemateko eta esku hartzeko leku pribilegiatuan daude.

Lan honen bidez, haurren babesgabetasun-kasu baten aurrean hautematean, jakinaraztean eta esku-hartzean eskolak duen funtsezko eginkizuna azpimarratu nahi da. Horretarako, zer den, zer mota eta grabitate-maila dauden, izan ditzakeen ondorioak, seinale adierazleak, etab. ezagutzuz, eta behar bezala jarduteko, ondo informatuta eta trebatuta egotearen, prebentzioaren eta esku-hartze goiztiarraren garrantzia azpimarratuz. Horrez gain, 3 eta 6 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoentzako tailer bat ere proposatzen da. Tailer horretan, hainbat ariketaren bidez, haur bat behar bezala garatzeko hain beharrezkoak diren zenbait guraso-gaitasun lantzen dira.

Hitz gakoak: haurren babesgabetasuna; eskolaren papera; esku-hartze goiztiarra; tratua; guraso-eskumenak.

Resumen

La desprotección infantil es una realidad muy grave desconocida para muchos y que, siguiendo un protocolo de actuación, debe ser abordada lo antes posible. Existen situaciones así en todos los niveles de la sociedad; por eso, la escuela, dado el papel tan importante que juega en la vida de los menores, se encuentra en un lugar privilegiado de detección e intervención.

Este trabajo pretende subrayar el papel fundamental de la escuela en la detección, comunicación e intervención de estas situaciones. Para ello, definiendo qué es, los tipos y niveles de gravedad, las posibles consecuencias, las señales indicadoras, ..., y subrayando la importancia de estar bien informado y formado, la prevención y la intervención temprana para actuar correctamente. Además, se propone un taller para

padres con hijos de 3 a 6 años, en el que se trabajan, mediante diferentes ejercicios, algunas competencias parentales necesarias para el correcto desarrollo de los menores.

Palabras clave: desprotección infantil; el papel de la escuela; intervención temprana; buen trato; competencias parentales.

Abstract

Child unprotection is a reality of great gravity unknown to many and that following a protocol of action, must be addressed as soon as possible. Situations like this can be found at all levels of society, that is why the school, given the important role it plays in the lives of minors, is in a privileged place of detection and intervention.

This project is intended to underline the fundamental role of the school in detecting, communicating, and intervening if these situations. For this, defining what is, the types and levels of gravity, the possible consequences, the indicator signals, ..., and emphasizing the importance of being well informed and trained, prevention and early intervention to act correctly. Furthermore, a workshop is proposed for parents with children from 3 to 6 years old, in which some parental competencies necessary for the correct development of minors are worked through different exercises.

Keywords: child unprotection; the role of the school; early intervention; good deal; parental competitions.

Aurkibidea

Sarrera/Introducción	3
1. Marko Teorikoa	5
1.1. Justifikazioa/Justificación	5
1.2. Helburuak/Objetivos	7
1.3. Babesgabetasuna kontzeptua	7
1.3.1. Definizioa: babesgabetasuna vs. Tratu ona	8
1.3.2. Babesgabetasun motak	12
1.4. Sustapenezko prebentzio-paradigma	16
1.5. Sareko lana	17
1.6. Teoria desberdinak	19
1.6.1. Atxikimenduaren teoria	19
1.6.2. Haurtzaroko beharren teoria	22
1.6.3. Erresilientzian oinarritutako modeloak	26
1.7. Marko legala	29
1.8. Babesgabetasun-egoera desberdinak	33
1.9. Jarduketarako printzipio teknikoak	34
1.9.1. Parte hartzaileak	42
1.9.2. Sistemaren helburua	44
1.9.3. Prebentzio eta esku-hartze goiztiarraren garrantzia	44
1.10. Eskolaren papera	46
1.10.1. Detekzioa eta jakinarazpena	47
1.10.2. Hezkuntza Sistemaren parte hartzea esku-hartzean	52
2. Marko Praktikoa	62
2.1. Justifikazioa	62
2.2. Guraso-eskumenak	64
2.3. Gurasoentzako tailerra	69
2.3.1. 1. Proposamena	71
2.3.2. 2. Proposamena	73
2.3.3. 3. Proposamena	75
2.3.4. 4. Proposamena	78
2.3.5. 5. Proposamena	79
2.3.6. 6. Proposamena	81
2.3.7. Ebaluazioa	84
Ondorioak eta galdera irekiak/Conclusiones y cuestiones abiertas	85
Bibliografia	89
Eranskinak	94
Eranskina I	94
Eranskina II	95
Eranskina III	95
Eranskina IV	96
Eranskina V	96
Eranskina VI	98
Eranskina VII	100
Eranskina VIII	101

SARRERA / INTRODUCCIÓN

En la sociedad y en el entorno en el que vivimos, hablar de maltrato infantil es algo que se hace extraño, nos parece que es algo lejano a nuestro entorno. Parece que nuestra sociedad ha avanzado y la protección a la infancia es un eje central de la sociedad actual, pero no solo al rededor del mundo sigue habiendo situaciones donde la infancia está totalmente desprotegida, sino que también, en nuestra sociedad actual y en nuestro entorno, los últimos años, las crisis económicas, etc. han dado paso a la precariedad de millones de familias en las cuales hay miles de niños/as en riesgo; de esta manera, destruyendo a los niños/as y a la sociedad. Es por eso por lo que, hoy en día, todavía son necesarias las ONG como *Save the Children* que luchan por que los derechos de los niños y de las niñas sean cumplidos, crezcan sanos/as, tengan la oportunidad de aprender, estén protegidos/as de la violencia y sus necesidades sean escuchadas. Además, demandan a los partidos políticos que uno de los ejes centrales de la sociedad sea la protección de la infancia, siendo los niños, las niñas y los/las adolescentes una prioridad para todos los partidos políticos. Para ello, pidiendo la aprobación de la Ley Integral de Protección de la Infancia y la Adolescencia frente a la Violencia, la impulsión de medidas concretas para reducir la pobreza infantil, acabar con la segregación escolar por motivos socioeconómicos y el desarrollo de una estrategia integral para la protección de niños, niñas y adolescentes migrantes y refugiados, atendiendo especialmente a aquellos/as menores que huyeron de sus países solos/as. Según los últimos datos de *Save the Children*, en España, el 84% de la población considera que la pobreza infantil es un problema importante y el 90% cree que la violencia que sufre la infancia a través del maltrato, el acoso escolar o el abuso sexual es grave o muy grave.

La brecha digital es también uno de los motivos de riesgo, ya que en un mundo y en una sociedad donde la tecnología es cada vez mas importante, se produce una gran desigualdad entre las personas que tienen acceso o conocimiento de ellas y las que no disponen de ellas. Hoy en día, la tecnología es una herramienta fundamental para el desarrollo y avance de la sociedad, además tiene una gran influencia en nuestro día a día y gracias a ella se han logrado grandes avances en ámbitos como el de la salud, educación, ocio, hogar, transporte, comunicación, etc. Por ello, cuando una familia no

puede optar a ella, se produce una gran desigualdad que puede afectar de manera negativa en la vida de un/a menor y desembocar en un caso de desprotección.

Son muchos los hogares y familias en riesgo de pobreza y es por eso por lo que la pobreza infantil es uno de los factores de riesgo al que hay que hacer frente. Este hecho está relacionado con la situación económica, social, etc. de la familia y puede tener graves repercusiones en la infancia, ya que las carencias vividas de pequeño/a pueden tener secuelas toda la vida, influye de manera determinante en el desarrollo cognitivo del niño/a, puede provocar enfermedades cardiovasculares y riesgo de depresión, la mortalidad infantil aumenta, sin educación el menor tiene un presente devaluado y un futuro destinado a la pobreza y exclusión, son muchos/as los niños/as obligados a trabajar para conseguir algo de dinero y la violencia está presente en el día a día de muchos/as menores. Es por eso por lo que, la protección de la infancia y adolescencia debe ser prioritaria para evitar situaciones de riesgo donde se produce la desprotección infantil.

El maltrato o desprotección infantil, como el resto de los tipos de maltratos hacia una persona, es un delito castigado por la ley y por el cual existe la obligación legal y moral de actuar. Aunque es cierto que la sociedad ha avanzado mucho en este aspecto, todavía son muchos los/las menores que a diario tienen que soportar golpes, humillaciones, desprecios, insultos, etc. por parte de un/a adulto/a. Uno de los motivos de que esto sea así, es que todavía están presentes en la sociedad ideas como la de “una torta a tiempo es un buen recurso para que el niño/a aprenda” o “se hace así porque lo digo yo y porque soy tu padre/madre”, es decir, el desconocimiento a lo que realmente se refiere la palabra maltrato y las consecuencias que esto tiene en el/la menor. Además, no hay que olvidar que el concepto de maltrato no solo hace referencia al maltrato físico, sino que va mucho más allá, y que maltratos como el emocional, pueden hacer mucho más daño y ser más destructivos que el físico.

Por lo tanto, la detección y actuación ante un caso de desprotección infantil debe producirse lo antes posible para evitar riesgos y sufrimiento en el niño o la niña. La escuela, al ser el lugar donde los/las menores pasan gran parte del día, se convierte en un lugar privilegiado para que el profesorado detecte situaciones así y analice las causas en colaboración con otros profesionales, ya que los niños/niñas a través de sus

comportamientos, palabras, silencios, dibujos, etc. expresan muchos síntomas relacionados con situaciones de desprotección y carencias en su vida familiar y social. Sin embargo, hay muchos casos que no se notifican porque permanecen ocultos o porque no se consideran desprotección o maltrato infantil, aunque lo sean, o porque no somos capaces de verlos a tiempo por falta de formación o compromiso. Es por eso que son muchos los motivos por los que hay que actuar ante un caso de desprotección infantil, ya que al menor le genera sufrimiento y le impide desarrollarse correctamente.

Por ello, en el marco teórico de este trabajo, partiendo de la definición, los tipos y situaciones de desprotección infantil, se recalca la importancia del trabajo en red, así como las diferentes teorías que han llevado a una nueva visión del maltrato infantil. Todo esto estará contextualizado en un marco legal, empezando a nivel estatal y terminando en Navarra. Relacionado con esto, se concretan los principios técnicos de actuación y los participantes, y se hace hincapié en la importancia de la detección y notificación temprana. Por último, se define el papel que juegan la escuela y los profesionales que trabajan en ella para garantizar la protección y el correcto desarrollo del menor, así como que sus necesidades estén bien cubiertas. En cuanto al marco práctico, se propone un taller para padres con hijos de entre 3 y 6 años en el que se trabajan algunas competencias parentales tan necesarias para poder responder y cubrir correctamente las necesidades de sus hijos/as para que se desarrollen correctamente.

1. MARKO TEORIKOA

1.1 Justifikazioa / Justificación

A la hora de hablar de la sociedad y de las situaciones que se viven en ella, es imprescindible mencionar el papel de la escuela. La escuela es una de las instituciones sociales más importantes y tiene la función de contribuir a la integración social de los niños y niñas y educarlos como adultos/as responsables, así como para que se conviertan en adultos/as capaces de convivir con el resto de personas comprendiendo las diferencias de cada uno/a y de los/las demás como algo positivo. De hecho, la escuela es un lugar de formación dónde se trabajan los buenos tratos, las dificultades, las relaciones, las capacidades... es decir, donde los niños y niñas tienen la oportunidad de

aprender, pero, sobre todo, es un lugar donde se supervisa la integridad de los menores. Además, los niños y niñas pasan $\frac{1}{4}$ del día en la escuela, convirtiéndose en un lugar privilegiado para detectar diferentes situaciones, ya que disponen de mucha información sobre el niño/a y su entorno.

Sin embargo, aunque han disminuido considerablemente, los casos de desprotección infantil siguen estando presentes en la sociedad, ya que, como Eduardo Martín y Haridian Suárez (2018) insisten, el maltrato infantil sigue siendo un problema social con graves consecuencias para el desarrollo de un gran número de niños y niñas del mundo. Según datos publicados por la Organización Mundial de la Salud, en 2014, en Europa el porcentaje de malos tratos era del 22,9% y el de abusos sexuales del 9,6%. Por ello, la escuela se convierte en un lugar privilegiado para identificarlos e iniciar la intervención para que el daño causado en el niño, la niña o el/la adolescente sea el menor posible.

Por este motivo, como se defiende en el "II. Manual de procedimiento en el marco de la Protección Infantil en la Comunidad Foral de Navarra (2019)", el objetivo de la Ley Foral 15/2005, de 5 de diciembre, de Promoción, Atención y Protección a la Infancia y la Adolescencia, es asegurar la atención integral a los menores de la Comunidad Foral de Navarra. Para ello, estableciendo medidas y conductas de prevención, promoción y protección y defendiendo y protegiendo los derechos de los/las menores y garantizando su desarrollo integral.

Por lo tanto, la detección de las situaciones de riesgo y desprotección requiere de un lenguaje común que sea comprendido por todas las personas participantes y de un sistema que coordine el trabajo en red y las actividades dirigidas a garantizar los derechos y la protección de la infancia entre diferentes instituciones y profesionales. De esta forma, y sobre la base de un modelo adecuado y básico que dé coherencia a las actuaciones del Sistema de Protección a la Infancia, se tomarán decisiones y se gestionarán y utilizarán los recursos.

El Sistema de Protección a la Infancia se basa en la valoración de los recursos y procedimientos utilizados para analizar el grado de gravedad de la desprotección y la situación personal, familiar y social. Por tanto, los criterios comunes para facilitar los procesos de detección, notificación, valoración e intervención de una situación de este tipo son imprescindibles. De esta manera, desde un punto de vista preventivo y

promotor, favoreciendo y facilitando la intervención de los profesionales, la colaboración entre las diferentes disciplinas, la colaboración entre los diferentes departamentos y el trabajo en red. Es decir, es necesario un sistema que satisfaga de forma eficaz y adaptada las necesidades y derechos de la familia y del niño, niña o adolescente (Gobierno de Navarra, 2019:4).

1.2 Helburuak / Objetivos

La escuela es un elemento fundamental de protección de los/las menores, por lo que no puede ponerse una venda en los ojos o mirar hacia otro lado ante un caso de desprotección infantil y dejar que otro ámbito como la salud o los servicios sociales lo solucionen. Por tanto, es necesario establecer un marco teórico y compartir algunos elementos y conceptos básicos con los protagonistas (familias, escuela, etc.). Es por eso que, los objetivos de este trabajo serán los siguientes:

1. *Definición del marco teórico:* definición de las situaciones de desprotección, características, tipos, niveles de gravedad, posibles indicadores, aspectos a tener en cuenta, posibles consecuencias en el/la menor, tipos de prevención, definición del buen trato, sus características, su importancia, como ponerlo en práctica, etc.
2. Definir el marco legal y competencial para hacer frente a las situaciones de desprotección infantil, vigentes tanto a nivel estatal como en la Comunidad Foral de Navarra, así como lo que se dice, define y se defiende en ellas.
3. *Determinar el papel de la escuela ante las situaciones de desprotección:* explicar y determinar las necesidades y quehaceres de la escuela para detectar situaciones de desprotección, prevenirlas, hacerles frente, etc. con el objetivo de garantizar el correcto desarrollo del/a menor.


1.3. Babesgabetasun kontzeptua

Kontzeptuak aldaketa handiak jasan eta eboluzionatu egin dira denboraren poderioz, eta Jorge Barudy, Boris Cyrulnik, John Bowlby edo Félix López Sánchez bezalako autoreei esker, babesgabetasunaren kontzeptuak ere bilakaera izan du. Gaur egun babesgabetasuna terminoa erabiltzeak ez du esan nahi erasoak dauden kasu bat denik,

hau da, tratu txar fisikoak daudenik. Kontzeptu hori askoz haratago doa; izan ere, haurrak ondo zaindutak ez daudenean edo artatzen ez diren kasuei, haien beharrak asetutak ez daudenean, beren adinerako egokiak ez diren ekintzak egitera behartzen dituztenean, etab. bezalako egoerei ere egiten die erreferentzia. Horren ondorioz, eskolaren zeregina bikoiztu egin da, irakaslearen zeregina irakastea baino askoz haratago doalako. Horregatik, oso garrantzitsua da guztiok gauza bera ulertzea, dauden eskuliburueta mugatzea, eta, gainera, horrelako egoera baten aurrean lagungarri eta baliagarri izango diren funtsezko kontzeptu argiak partekatzea.

1.3.1. Definizioa: babesgabetasuna vs. tratu ona

Haurren babesgabetasun egoera, adingabeak, guraso edo zaintzaileen portaeren eta ekintza edo ez-egitearen ondorioz, bere oinarrizko beharrak asetuak ez dituztenean eta kalte fisiko edo psikikoa (emozionala, soziala edota kognitiboa) jasateko arriskua dagoenean ematen dela dio " II. Manual de procedimiento en el marco de la Protección Infantil en la Comunidad Foral de Navarra" (2019)-k. Babesgabetasun maila desberdinak daude, aurrerago azalduko direnak:



1 Irudia. Babesgabetasun mailak

1. irudian ikusi daitekeen bezala, larritasun maila, gurasoaren jokaerak eta tratu horrek adingabeen duen eragina zehazten du. Gainera, mailaren arabera prebentzio mota ere, desberdina izango da. Hortaz, Babes Sistema, honako printzipio hauek arautzen dute (Nafarroako Gobernua, 2019: 5.liburukiko 13-14):

- Adingabe guztiek tratu txarretatik, abusuetatik eta zabarkeriatik zainduta eta babestuta izateko eta indarkeriarik gabeko ingurune batean bizitzeko eskubidea dute.
- Haurrak eta nerabeak, honako alderdiak oinarri izanik, babestuta izan behar dira:
 - Adingabeen eskubideak babestea.
 - Guraso edo legezko-arduradunei, beharrezkoa izatekotan, guraso-betebeharrak betetzeko laguntza-zerbitzu eta -baliabideak ematea.
 - Adingabea bere familiarengandik banandua izatea ekiditea.
 - Beharrezkoa izatekotan, administrazio publikoek guraso edo legezko arduradunei guraso-eginkizunetan aldi baterako ordezkatzeari edo adingabeari familia-ingurune alternatibo, egonkor eta seguru bat ematea, jatorrizko familian jarraitzea edo itzultzea ezinezkoa bada.
- Adingabearen interes nagusia, abiapuntua izan behar da.
- Ikuspegia eta baliabideak haurren beharretara egokitu behar dira.
- Familia, haurren garapenerako ingurune egokiena da.
- Prebentzio eta esku-hartze goiztiarrak garrantzia handia du.
- Kalitatezko erabakiak hartu behar dira; horretarako, beharrezkoa den denbora eskainiz.
- Erabakiak hartzerakoan eta esku-hartze prozesuan, bai adingabeak, bai bere guraso edo legezko arduradunek parte hartu behar dute.
- Ahalik eta esku-hartze txikienarekin eta epe laburrean aukera hobereana bilatu behar da.
- Aniztasunarekiko sentsibiltatea eta errespetua izan behar da.
- Etengabeko hobekuntza bilatu behar da.

Tratu onari dagokionez, haurrak, familiarengandik, gizartearengandik eta administrazioengandik jasotzen dituen afektu, zaintza, hezkuntza, laguntza eta sozializazio adierazpenek, bere garapen integral egokia (afektiboa, psikologikoa, fisikoa, sexuala, intelektuala eta soziala) bermatzen badute ematen da. Horregatik, haurrenganako tratu onak, adingabeen osasuna eta ongizate fisiko, psikologiko eta

soziala bermatzeko, bai familiako helduen, bai gizarte osoaren helburu nagusia izan behar da.

Gainera, tratu ona, errespetuan eta bestearen sentimenduak kontuan hartzean oinarritzen den pertsonen arteko harreman-eremu bat da; ezaugarri nagusi bezala, enpatiaren bidez besteen beharrak ulertzea eta errespetatzea; komunikazio eraginkorraren bidez beharrak partekatzea; gatazkak, indarkeriarik gabe konpontzea eta hierarkia eta boterearen erabilera egokia dituenak (Nafarroako Gobernuak, 2019: 5. liburukiko 14-15).

Hala ere, haur bat gizartean bizitzeko mugekin eta araukin hezteak, ez du esan nahi haren osotasun psikologikoa eta emozionala errespetatzen ez denik. Hau da, autoritatea modu egoki batean erabili behar da, non oinarria, maitasunez eta errespetuz hezteko eta hazteko, helduen maitasuna izan behar den.

Ikastetxeak, haurrak maiztasunez joaten diren erakundeak izateagatik, babesgabetasun-egoerak hautemateko, prebentzio neurriak ezartzeko, tratu ona oinarri izanik, pertsonen arteko harremanak sustatzeko eta familien eta beste profesional batzuen parte-hartzea bultzatzeko leku pribilegiatuak dira. Hona hemen prebentzio neurri batzuk:

- Familiei laguntza eta aholkularitza eskaintzea.
- Adingabeei, beren eta besteen emozioak ezagutzeko eta gizarte-harremanak sustatzeko jarduerak proposatzea.
- Guraso eta adingabeek, jardueren bidez, haurren eskubideak ezagutzea.
- Hezkuntza-komunitateak, haurren beharrak ezagutzea eta faktore babesleak sustatzeko eta arrisku-faktoreak ezabatzeko gaitasuna izatea.
- Ikasleei eta irakasleei azaltzea hurrenganako tratu txarrak jakinarazteko moduak.

Hau dela eta, gurasoei honako ideiak transmititu behar zaizkiela proposatzen dute Jesús García eta Venancio Martínezek *“Guía Práctica del Buen Trato al niño”* (2012) dokumentuan (A. Fernández Barreras eta E. Gómez Pérez. CAVAS elkarteak, Cantabria/FAPMI):

- *Seme-alabak onartu*: seme-alabak diren bezalakoak onartzea, beren gaitasun eta ahuleziak onartuz. Irakasteko eta babesaren emateko helburuarekin, maitatuak direla erakutsi, harrotasuna eta beren jokabideak egokiak ez direnean ere bere ondoan daudela transmitituz.
- *Maitasuna ematea*: “zaren bezala maite zaitut” mezua helarazi behar diete seme-alabei. Horretarako, musuz, besarkadaz, hitz maitekorrez... betetako harreman betean oinarrituz. Gainera, bikote-harremana edozein dela ere, haurrek duten beharretako bat, gurasoak bai fisikoki bai emozionalki edukitzea da; beraz, gurasoekin konta dezaketela sentitu behar dute.
- *Arrazoizko mugak ezartzea*: haien adinera, beharretara, etab. egokitzen diren zentzuzko muga eta arau koherenteak ezarri behar zaizkie, jakin dezaten zer egin dezaketen eta zer ez.
- *Jolasteko eta ikaskideekin adiskidetasun-harremanak izateko eskubidea errespetatu behar da*: haurrek askatasunean jolastu behar dute, helduen etengabeko kontrol gabe, eta horretarako, batzuetan, lagun bat behar dute. Beraz, gurasoen ardura da haien seme-alaben eta berdinen arteko harreman sozial eta afektiboak sustatzea.
- *Adingabearen autonomia errespetatu eta sustatu*: haurrek, beren kabuz esploratzeko, frogatzeko, egiteko, aztertzeke, ikertzeke... beharra dute, modu honetan ikasten eta hobetzen baitute, gurasoen gehiegizko babesik gabe; bestela, gurasoen menpe egoten ikasten dute.
- *Benetako edo irudizko arriskuetatik babestea*: haurrari, arazo bat duenean gurasoengana jo dezakeela transmititu eta arriskuak ezagutzen eta saihesten irakatsi behar zaio. Irudimeneko beldurrei dagokionez, oso garrantzitsua da umeak entzutea, ulertzea eta lasaitzea.
- *Bere sexualitatea onartzea eta honen irudi positiboa ematea*: haurrek, beren gorputza eta besteena ezagutzuz, beren sexualitatea adierazten dute. Horregatik, ez dagoela gorputz itsusirik edo hobeagorik, eremu bat bera ere ez dela txarra edo zikina,... transmititzea oso garrantzitsua da. Gainera, sexuarekin zerikusia duenaren inguruko jakin-minak (sexuen arteko desberdintasunak, sexu-jokabidea...), galderak egitera eta egunero ikusten dituzten jokabide asko

imitatuz, jolastera bultzatzen dituzte. Galdera horiek ez dira saihestu behar eta bi sexuen arteko errespetua sustatu behar da.

- *Komunikazioa eta enpatia*: harreman on baten oinarria komunikazioa da; horregatik, haurrak, entzunak, ulertuak eta errespetatuak sentitu behar dira. Horretarako, behar den denbora eskainiz, hau da, utzi behar zaie adierazi nahi dutena azaltzen, presa sartu gabe edo helduak, esaldiei aurrea hartu edo hauek bukatu gabe.
- *Parte hartzea*: hausnarketarako eta parte hartzerako gaitasuna duten pertsona gisa hezi behar dira.
- *Denbora eta arreta eskaini*: haurrek gurasoekin egoteko denboraren beharra dute; maitasuna sentitzeko, ulertuak sentitzeko, mugak ezartzeko, sentimenduak, ideiak, jolasak, gauzak... partekatzeko denbora.

1.3.2. Babesgabetasun motak

Babesgabetasun-motak, gurasoek beren seme-alaben aurka behin eta berriz egiten dituzten ekintza desegokiak dira, adingabearen osotasun fisikoa edota psikikoa arriskuan jartzen dituztenak. Nafarroako Gobernuak (2019) eta M. Novok, R. Arcek, D. Seijok eta F. Fariñak (2002) adierazten duten bezala, honako hauek dira topa daitezkeen babesgabetasun motak:

1. TRATU TXAR FISIKOAK

- a. *Tratu txar fisikoa*: kalte fisikoa edo gaixotasuna eragiten dioten edo jasateko arrisku larrian jartzen duten, helduarengandik jasotzen dituen eta nahi gabekoak ez diren ekintzak dira. Adibidez, haurra jotzea ageriko lesioak (ubeldurak, hausturak, dislokazioak, etab.) eraginez, itotzea, pozoitzea...
- b. *Janari- eta ur-askatasuna kentzea*: haurrak, gutxienez egun bat daramanean ura edan eta ezer jan gabe, edo jasotako kantitatea ez denean egokia edo bere adinerako egokia ez den janaria ematen diotenean. Horrek, bere garapenean edota osasunean eragina du edo eragin dezake.

- c. *Konfinamendu edo murrizketa fisikoa*: helduak haurraren jarduera fisikoa mugatzen du. Honek haurrarengan kalte fisiko edo psikikoa eragiten du edo eragin dezake.

2. ZABARKERIA

Adingabearekin bizi diren helduek ez dituzten haurraren oinarrizko behar fisikoak behar bezala asetzen.

a. *Behar fisikoekiko zabarkeria*:

- i. Elikadura: elikadura desegokia jasotzen du eta horrek bere osasunean edota garapenean ondorioak ditu.
- ii. Osasun fisikoaren zainketa: higiene-, osasun- eta atsedeneharrak ez ditu ondo asetutak, haren osasunean edo garapen fisikoan eta errendimenduan eraginez.
- iii. Jantzkeria: haurrak ez du arropa nahikorik, baldintza onean dagoen eta baldintza atmosferikorako egokia den arroparik, haren osasunean edota eguneroko jardueren parte hartzean eraginez.
- iv. Higiene pertsonala: higiene pertsonaleko errutinak ez daude ondo zainduta eta beste haur eta helduekin dituen harremanean eragiten du.
- v. Etxebizitzaren higiene-baldintzak: familiaren etxeko higiena ez da ona eta adingabearen osasunari edo garapen fisikoari eragiten dio.
- vi. Etxebizitzaren egonkortasuna eta bizigarritasun-baldintzak: egonkorra ez den, behar bezala hornituta ez dagoen eta bere intimitatea zaintzeko nahikoa lekurik ez duen etxe batean bizi da.

b. *Segurtasun-beharrekiko zabarkeria*:

- i. Etxebizitzaren segurtasun fisikoa eta arriskuen prebentzioa: adingabeak, arriskutsua den etxe batean bizi da, edota helduak, umeari kalte larria eragiten dioten, arduragabekeriako jokabideak ditu.
- ii. Ikuskapena: Helduek ez dute adingabea ondo zaintzen ez etxe barruan ez kanpoan, edo pertsona ezgaitu baten ardurapean uzten dute, bere bizitza arriskuan jarritz.

- iii. Beste pertsona batek edo batzuek eragindako babesgabetasun larriko egoeren aurrean babestea: adingabea ez da behar bezala babestuta izan hirugarren pertsona baten tratu txar edo erasoetatik.
- c. *Prestakuntza-beharrekiko zabarkeria*: gurasoek edo legezko tutoreek ez dira haurraren eskolako asistentziaz kezkatzen edota ez dituzte eskola-eremuko zailtasunei aurre egiteko beharrezko neurriak hartzen.
- d. *Behar psikikoekiko zabarkeria*:
 - i. Interakzioa eta afektua: helduak ez die adingabearen interakzio-eskaerei erantzuna ematen, haurrarengan kalte psikikoa eraginez.
 - ii. Estimulazioa: eskolatik kanpo, adingabeak ez du hezkuntza-espereintzia edo bestelako esperieintzia aberasgarririk, kalte psikikoa eraginez.
 - iii. Arazo emozional larriei arreta espezifikoa: helduak, dituen arazo emozional larriei aurre egiteko tratamendu psikologiko edo psikiatrikoaren bilaketa alde batera uzten, ukatzen edo atzeratzen du.
 - iv. Arauak, mugak eta balio moral positiboen transmisioa: guraso edo legezko tutoreak arazoak ditu arauak eta mugak jartzeko edo ez ditu jartzen; adingabeak jokabide edo gizartera egokitzeko zailtasunak izateko arriskua egonik.

3. ABUSU SEXUALA

Helduak, botere-posizio batetik, adingabea sexu-ekintzetan edo sexu-estimulazioa lortzeko erabiltzen du. Hau da, koitoa egitean edo egiten saiatzean eta kontaktu fisikoko edo gabeko abusuan (ukitzea, masturbazioa, sexu proposamenak...) datza (Jiménez eta beste batzuk, 1996).

4. SEXU-ESPLOTAZIOA

Helduak, prostituzioan, ikuskizun exhibizionistetan edo pornografikoetan edo material pornografikoetan adingabearen parte-hartzea erabili, sustatu, ahalbidetu edo errazten du. Hauetan, ez du zergatik adingabearen eta helduaren arteko kontaktu fisikoa egon behar.

5. TRATU TXAR PSIKIKOAK

De Paúl eta Arruabarrena (1997) esaten duten bezala, botere-posizio batetik eta haurraren jokabide-, kognitibo-, afektibitate- edo fisiko-funtzionamendua kaltetzen duten helduek egiten dituzten ekintzak (izutu, isolatu, etab.) dira:

- a. *Tratu txar emozionala*: haurra, kalte psikikoa eragiten dion jokabideen (arbuioa, isolamendua, exijentzia handia...) biktima da.
- b. *Guraso-figuren arteko gatazketan eta guraso-figuren eta haur edo nerabearentzat esanguratsuak diren eta bizikidetzeta-nukleokoak diren beste senide batzuen arteko gatazketan instrumentalizatzea*: guraso-figuretako batek beste pertsona bati min egiteko erabiltzen du haurra, adingabearengan kalte psikikoa edo leialtasun-gatazka sortuz eta harremanean eraginez.
- c. *Genero-indarkeriako edo etxeko indarkeriako egoeren eraginpean egotea*: adingabea bere familiako kideen artean dagoen indarkeria fisikoaren edo ahozkoaren lekuko da. Honek, kalte psikikoa eragiten dio.

6. ABANDONUA

- a. *Abandonua*: heldu arduradunak, adingabea bakarrik uzten du eta ez da itzultzen, zaintza hirugarren pertsona baten esku uzten du edota zaintza-figuretan ustekabeko aldaketak eman dira; adingabearen nahaste emozionalak eraginez.
- b. *Etxebizitzara sartzea debekatzea edo kanporatzea*: adingabea etxetik bota dute edo sarrera ukatu diote, arrisku egoera batean utziz.

7. GURASOEN EZINTASUNA HAURRAREN EDO NERABEAREN JOKABIDEA KONTROLATZEKO

Gurasoak, seme-alaben portaera modu egokian kontrolatzeko edo maneiatzeko ez dira gai, edota modu desegoki eta kaltegarrian egiten saiatzen dira.

8. KORRUPZIOA

Helduen jokabide hauek, jokabide antisoziala sustatzen dute eta adingabearen integrazioa eragozten dute; bereziki agresibitatean, sexualitatean eta drogetan antzematen direnak. Honen adibideak, hauek izan daitezke: delinkuentzia sustatzea, bizimodu desegokien ereduak eta beste pertsona batzuegan indarkeriaz edo mendekotasunaz jokatzeta.

9. BESTE TIPOLOGIA BATZUK

- a. *Gurasoen tratu txarrak*: baliteke haurdunaldian, amak, drogetaz edo alkoholaz abusatu izanagatik edo edozein bizi-zirkunstantziagatik, jaioberriak gaixotasun edo anomalia fisiko, mental edo sentsorial larriak edo alterazioak izatea.
- b. *Eskekotasuna*: familia eskean ibiltzen da, eta, horren ondorioz, adingabea ez da klasera joaten edota bere gizarte-jardueretan eragiten du. Gainera, baliteke haurra, kalean edo beste leku publiko batzuetan dirua eskatzen jartzea.
- c. *Lan-esplotazioa*: onura ekonomikoa lortzeko, adingabea, helduek egin beharko lituzketen eta beren jarduera/behar sozial edota eskolakoetan eragina duten lanak egitera behartuta dago.
- d. *Munchausen sindromea, botereen arabera*: gurasoetako batek edo biek etengabeko ospitaleratzeak eta azterketa medikoak egiten dizkiote adingabeari, itxurazko sintoma fisiko patologikoak edo aitak/amak berak sortutakoak erabiliz.

1.4. Sustapenezko paradigma

Aurretik aipatu izan den bezala, familiaren babesgabetasun-kasu baten aurrean eskolak duen zeregina funtsezkoa da, babesgabetasun-egoera baten sintomak lehen agertzen diren tokia baita. Beraz, kontzeptu honek prebentzioari egiten dio erreferentzia; izan ere, horrelako egoera bati aurrea hartzearen garrantzia azpimarratzen du kontzeptuak, modu honetan, kalteak eta esku-hartzea txikiagoak izan daitezten. Hortaz, babesgabetasun kasu batekin topatu baino lehen esku-hartu behar da; hori baita prebentzioa, egoera ez larritzeko eta babesgabetasun-kasu bat ez bihurtzeko jardutea, adingabeak sufrituko duen kaltea handiagoa izango baita.

Hortaz, prebentzio- eta sustapen-jarduerak, batez ere, haurrak arreta integrala behar duenean, hau da, haurraren bizitzako lehen etapan egiten dira. Horrela, atxikimendua zailtzen duten faktoreak identifikatzen dira eta estrategiak ezartzen dira haurrak behar bezala garatu ahal izateko; eta, horrez gain, hezkuntza-metodologia berritzaileen bidez, modu erraz, interaktibo eta produktibo batean, lortu nahi diren helburuak eskuratzen

dira (Luna B., 2007). Bukatzeko, prebentzio programa eraginkor batek, gurasoei, seme-alabak hazteko ezagutza eta teknika positiboak lortzeko aukera ematen die.

1.5. Sareko lana

Babesgabetasun-egoera bat arrakastaz gainditzeko, ikuspegi komun bat izatea eta parte-hartzaile guztien artean hipotesi bat egitea ezinbestekoa da. Gero, profesioaletako batek (tutoreak, pediatrak, gizarte-langileak...) koordinatuta, aurre egiteko plan bat sortzeko. Hau da, José Ramón Ubietok (2007) dioen bezala, lehenik eta behin, itxaropenak eta interesak amankomunean jarriz, parte-hartuko dutenen artean, arazoari aurre egiteko eredu bat aukeratzeko adostasuna egon behar da. Bigarrenik, zailtasunei aurre egiteko, guztien konpromezua ezinbestekoa da. Azkenik, aldagarria den, erreferentzia argiak eta partekatuak ematen dituen eta zerbitzuen arteko erregulazio- eta bitartekaritza-elementua izango den plana behar da.

Beraz, bizitzako lehenengo etapatik kalitatezko hezkuntza jasotzea eta belaunaldien arteko transmisioa, pobrezari eta gizarte-bazterketari aurre egiteko tresnarik (prebentziorik) onena dela defendatzen du "Nafarroako komunitatean familia, haur eta nerabeei laguntzeko II. Plan integrala 2017-2023"-k (2017). Hortaz, hezkuntza-eremuak, gainontzeko zerbitzuekin (Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, Osasun Mentaleko Zentroak, etab.) batera lan eginez, honako helburuak jorratu ditzakete:

- Gaixotasunen prebentzioa eta osasunaren babesa eta sustapena.
- Adingabeen autonomia bultzatzea.
- Eskolan osasuna sustatzea.
- Gazteen osasun afektibo, sexual eta ugalketaren arloko hezkuntza sustatzea.
- Tratu onak sustatzea eta indarkeria saihestea.
- Osasun mentala sustatzea eta haur eta gazteen beste osasun arazoak saihestea.
- Hezkuntza-komunitateari, osasuna eta osasun mental positiboa sustatzeko eta arazo klinikoetan (larrialdi-egoerak, istripuak, gaixotasun kronikoak) esku hartzeko behar diren ezagutza eta trebetasunei buruz prestakuntza ematea.

Beraz, baliabideen, denboren eta jardueren homogeneotasuna bermatzeko babes-sistema bakarra izan behar da. Izan ere, haurren babesgabetasuna ezin da Gizarte Zerbitzuen ardura eskusibo bezala ulertu; nahiz eta gizarte-babeseko sistemaren zati Saioa Oderiz Zubieta

garrantzitsu bat izan. Aztertu beharreko egoeren aniztasuna eta konplexutasuna dela eta, konponbidea lortzeko eta esku-hartzea eraginkorra izan dadin, zerbitzu desberdinen lanak bateratuz lortu behar da. Inplikaturako erakunde eta profesionalak egiten duten sareko lanak, ikuspegi orohartzaile batetik, egoera modu ordenatuan lantzeko aukera ematen du, eta ez zatikatuta eta testuingurutik kanpo dagoen moduan. Horrenbestez, sareko lanak honako aukerak ematen dituela dio Lourdes Aramburu psikologoak (2009):

- Orientazio komuna duen funtzionamendu bat integratzeko aukera ematen du. Gainera, kasuaren iraunkortasuna bultzatzen du, eta batzuetan, familiako kideek, zerbitzu desberdinekin izan ditzaketen joera konfrontatzaile eta utzikeriakoak indargabetzen ditu.
- Arazoa ahalik eta lehen konpontzeko beharrari aurre egiten dio. Izan ere, profesionalak, batzuetan, ahaleginak, egoera ulertzen saiatzean baino, arazoa konpontzean jartzen dute. Beraz, bakoitzaren ekarpenak azaltzea, lana hobeto pentsatzera eta esku-hartzea zentzuduna izatera behartzen du.
- Zerbitzu bakoitzaren protokoloetatik haratago lan egiteko aukera ematen du, esku-hartze eraginkorrago bat lortuz.

Gainera, haur eta nerabeentzako ekintzak indartzeko helburuarekin, gazteen bizitza-espazioetan, Iruñeako zortzi auzotan (Aldezaharrean, Arrotxapean, Sanduzelaietan, Txantrean, Etxabakoizen, Mendillorri-Ripagainan eta Arrosadia-Azpilagañan) Prebentzio Ekintza Komunitarioko Zerbitzuak sortu dira. Modu honetan, haien eskaerak, ahuleziak eta beharrak abiapuntu izanik, harreman sozialak sustatuz, lurraldeko baliabideetan oinarrituz eta hauek elkartuz, nerabeei, bizi diren tokian laguntza eskaintzen zaie (Nafarroako Gobernua, 2017:202).

Hala ere, sareko lanak oraindik ere kontuan hartu beharreko zenbait muga ditu (Aramburu, 2009):

- Landu daitezkeen egoeren kopurua mugatua da, izan ere, landu daitezkeen egoerek honako ezaugarriak izan behar dituzte:
 - Profesionalak deserosotasuna eta kezka izan behar ditu kasuaren bilakaerarekin.
 - Ohiko koordinazio-maila eta talde-lana ez dira nahikoak.

- Inplikaturako hainbat zerbitzu eta esku hartzeko motibazio-maila desberdinak daude.
- Behin arazoa eta ekintza-plana zehaztua, beste planteamendu batzuk blokeatu ez daitezen, sarea hain trinkoa izatea saihestu behar da.
- Beste sistemen aitortzea eta erakundeen babesaren duen lider bultzatzaile eta animatzaile bat behar da.
- Sareko lanak ez du hura osatzen duten zerbitzuak eraldatu nahi.

1.6. Teoria desberdinak

Teoria desberdinak egon arren, haien artean osatzen eta oinarritzen dira, gaur egun ezagutzen diren babesgabetasunaren inguruko oinarri teorikoak osatuz. Horregatik, gaur egungo Tratu Onen Teoriaren zatirik handiena John Bowlby (1977), Félix López Sánchez (2008) eta Jorge Barudy (1998) bezalako egileengandik dator.

1.6.1. Atxikimenduaren teoria

Atxikimenduaren teoriaren sortzailea John Bowlby (1907-1990) psikoanalista britainiarra izan zen. Bere teoriak dio amaren figura batekin lotura indartsu eta funtsezkoa eratzeko haurrek duten eta espeziearen biziraupenerako herentzia arkaiko baten parte den joera dela, eta ez duela loturarik beste beharrian batzuekin. Beraz, hola definitu zuzen "Atxikimenduaren teoria" J. Bowlby-nek 1977ean: *"Atxikimenduaren teoria, gizakiek pertsona jakin batzuekiko lotura afektibo sendoak sortzeko duten joera kontzeptualizatzeko modu bat da, eta nahigabeko bereizketaren eta galera afektiboaren ondorioz sortzen diren min emozionalaren eta nortasunaren nahasmenduen askotariko moduak azaltzeko saiakera bat, hala nola antsietatea, haserrea, depresioa eta urruntze emozionala"*. Urte batzuk geroago honela definitu zuen: *"Atxikimenduaren teoria gizakiek besteekiko lotura afektibo indartsuak sortzeko duten joera kontzeptualizatzeko modu bat da, baita larritasun-, depresio- eta haserre-emozioak adierazteko modu desberdinak zabaltzeko modu bat ere, abandonatuak direnean edo banantze edo galera bat bizi dutenean"* John Bowlby (1998).

Beraz, Josu Gagok (2014) defendatzen duen bezala, hurbiltasuna, kontaktua, etab. bilatzean, beste pertsonak dituen jokabideekin eta ingurumenarekin sortzen den lotura

afektiboa da atxikimendua. Hortaz, atxikimenduak sortzen dituen loturak hiru elementuren arabera ezartzen dira:

- *Atxikimendu-jokabideak*: Ama edo zaintzailearen arreta deitzeko haurrak erabiltzen dituen oihuak, irribarreak...
- *Atxikimendu-sentimenduak*: haurraren zein atxikimendu-figuraren sentimenduak barne hartzen dituen eta segurtasun sentimendua sortarazten duen harreman afektiboa da.
- *Irudikapen mentala*: haurrak, hazten doan heinean, atxikimendu harremanari buruz dituen oroitzapenak dira.

Teoriak, haurraren eta gurasoen arteko harremanean eta bizi zikloan, lotura intimo eta emozionalek duten garrantzia eta haurtzaroko atxikimendu-harremanek, nortasunaren garapenean eta, batzuetan, psikopatologiaren jatorrian duten eragina azpimarratzen du. Horregatik, oso garrantzitsua da gurasoek, haurraren seinaleak antzematea, ondo interpretatzea eta erantzun egoki bat ematea, hau da, “erantzun sentikor” bat ematea. Atxikimendua eraikitzeke hainbat fase daude (Gago, 2014:4):

- *0-6 hilabete*: atxikimendu-figuraren eraikitzea eta ezagutzea ematen da.
- *6 hilabete - 3 urte*: haurrak, mehatxuaren bidez heldua bilatuz, une “lasaietan” urrunduz eta esploratuz eta lehenengo urtearen amaieran, haurraren eta familian atxikimenduko harremana barneratuz eta egonkortuz, atxikimenduarekin esperimintatu eta hau arautzen da.
- *3 urtetik aurrera*: haurrak sentitzen du atxikimendu-figura urrundu egiten dela, eta, hori saihesteko, haserrea edo amorrua bezalako jokabideak erabiltzen ditu.
- *Nerabezaroa*: desatxikimendua, dolua eta berratxikimendua ematen dira fase honetan. Nerabezaroan, guraso-figurekiko atxikimendu-lotura galdu egiten da; nerabeak galdutako horren dolua onartzen ikasten du, eta, ondoren, atxikimendu berriak sortzen ditu figura berriekin.
- *Helduaroa*: bikotearen arteko atxikimendua ematen da. Fase honetako atxikimendu adierazpenak ez dira hain nabariak eta sexu-harremanak egon daitezke.

2 urte arteko umeekin egindako ikerketa bati esker honako atxikimendu mota desberdinak bereizi zituzten Ainsworth eta Bell-ek (1970):

- *Atxikimendu segurua*: haurra ziur dago egoera txar baten aurrean guraso-figurak, ulertu eta lagunduko duela. Horregatik, mundua esploratzeko konfiantza du, amarekin zuzenean harremanetan jartzen da eta erantzun egokiak ematen dizkio. Gainera, sentimendu positiboak eta negatiboak adierazten ditu eta kidesan-, norberaren onarpen- eta oinarritzko konfiantza-sentimenduak garatzen ditu.
- *Atxikimendu iheskorra (A)*: amari ez dio kasurik egiten eta ihes egin ohi dio. Antsietate handiagoa du, eta helduak ez zaizkiola axola dirudi. Alderdi emozionala, besteen babesik edo maitasunik gabe bizi du eta ez du beldurra, ezinegonak edo amorrua adierazten.
- *Atxikimendu ez-segurua, antsietate-anbibalentea (C)*: haurra ez dago ziur helduak bere beharrei erantzuteko gai izango den. Kasu hauetan, amari amorruz erantzun diezaioke, kontaktua edo interakzioa errefusatu eta berehala, berriz ere, kontaktua bilatuz. Hau da, amari atxikitzen dira, banaketa oso gauza larria iruditzen zaielako. Ez dute esplorazio portaerarik, mundua esploratzeak, antsietatea sortzen dielako.
- *Atxikimendu ez segurua, antolamendurik eta bereizkeriarik gabea (D)*: haurrak helduekin harreman pobrea eta aldakorra du, itxuraz “kasualak”, nahasiak eta desantolatuak diren jokabideekin. Beraz, bilaketaren eta saihestearen artean ibiltzen da.

Atxikimendu mota hauek ezagutzen dituenari errazagoa egingo zaio babesgabetasun-kasu bat identifikatzea, haur bat nola sentitzen den eta zer behar duenaren inguruan pistak ematen baititu. Hortaz, eskolaren papera oso garrantzitsua da, batez ere, 3 urtekoen egokitzapenaldian. Izan ere, umeak, leku ezezagun eta berri batera iristen dira, pertsona berriak dituenak, ikasi, ulertu eta errespetatu behar dituzten arau eta funtzionamenduarekin... Horrenbestez, irakaskuntzako profesionalentzako aldizkari digitalak (2011) dioten bezala, haur eskolako haurrak familiarengandik banantzea zailtasun gabe onartzen duela esan daiteke baldin eta:

- Gainontzeko ikasleekin eta helduekin harremantzeko gai bada, bere afektua eta barne mundu emozionala beldurrik gabe adieraziz.
- Bizitako esperientziak besteekin partekatzen dituenean.
- Sozialki eta banaka, jokaera egokiak dituenean.
- Oldarkortasuna edo isolamendua alde batera utzi eta bere adinari dagokion egozentrismoa modu koherentean erabiltzen duenean.
- Bere atxikimendu-figurak antsietatearekin itxaroten ez dituenean, etengabeko hurbilketa fisikoa eskatuz.
- Gelako espazioa ondo erabiltzen duenean.
- Etxetik objektuak eskolara eramaten dituenean.

1.6.2. Haurtzaroko beharren teoria

Giza eskubideen artean, desberdintasun indibidualak eta kulturalak alde batera utzita, oinarritzko premia unibertsalak asetuta izatea aurkitzen da. Beraz, haurrak ere, jaiotzen direnetik, beren kabuz asetu edo erreklamatu ezin dezaketen eskubide batzuk dituzte, Esperanza Ochaitak eta M^a Ángeles Espinosak (2012) dioten bezala. Hortaz, Félix López Sánchez (2008), Salamancako Unibertsitateko Sexualitatearen Psikologian katedraduna, haurtzaroko beharrak modu argi, sakon eta erabilgarrian planteatzen ditu; gainera, zalantzarik izanez gero, erantzun erraz eta argiak aurkitzeko modu batean:

1 Taula. Félix López Sánchezek definitutako haurtzaroko beharrak

BEHAR FISIKO-BIOLOGIKOAK		
Beharra	Prebentzioa	Lotutako arriskuak
Desiratutako umea	- Plangintza familiarra	- Ez desiratua - Nerabe ama - Ama oso heldua
Elikadura	- Amaren elikadura egokia - Amagandiko edoskitzea - Nahikoa, askotarikoa - Denboran sekuentziazatuta - Adinera egokituta	- Fetuari kalte egiten dioten substantziak hartzea - Desnutrizioa - Defizit espezifikoak - Ez da egokia adinerako - Gehiegikeriak: obesitatea

Temperatura	Etxebizitza, jantzi eta eskola baldintza egokiak	<ul style="list-style-type: none"> - Etxebizitzan hotza - Etxebizitzan hezetasuna - Oinetakorik eza - Jantzirik eza
Higienea	<ul style="list-style-type: none"> - Gorputz-higienea - Etxebizitza-higienea - Elikadura-higienea - Jantzi-higienea - Ingurunearen higieena 	<ul style="list-style-type: none"> - Zikinkeria - Ingurunearen kutsadura - Germen infekziosoak - Bizkarroiak eta karraskariak
Loaldia	<ul style="list-style-type: none"> - Espazioko Ingurumen babestuta eta isila - Nahikoa, adinaren arabera - Gauez - Siestekin, txikia izatekotan. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ziurtasunik eza - Soinuen kutsadura - Etenak maiztasunez - Denbora gutxiegi - Eguneko atsedeen-lekurik eta -denborarik eza
Jarduera fisikoa: ariketa eta jolasa	<ul style="list-style-type: none"> - Espazioan mugitzeko askatasuna - Objektuekin, jostailuekin eta beste haur batzuekin osatutako espazioa - Elementu naturalekin kontaktua: lurra, ura, animaliak... - Ibilaldiak, txangoak... 	<ul style="list-style-type: none"> - Gorputz-gelditasuna - Lekurik eza - Objekturik eza - Jostailurik eza - Jarduerarik eza - Sedentarisinoa
Benetako arriskuen babesa. Osotasun fisikoa	<ul style="list-style-type: none"> - Segurtasunari egokitutako etxea antolatzea: entxufeak, eskailerak, leihoak... - Segurtasunerako egokia den eskola antolatzea: eskolak, jolastokia eta jarduerak - Hiriaren antolaketa, haurtzarora babesteko: kaleak, zirkulazioa... - Zirkulazio zuhurra, haurrak atzealdean eta gerrikoarekin - Haurren harremanak ezagutzea eta kontrolatzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Etxeko istripuak - Gehiegizko zigorra - Istripuak eskolan - Zirkulazio-istripuak - Erasoak
Osasuna	<ul style="list-style-type: none"> - Adinaren eta osasun- egoeraren araberrako azterketak - Txertaketak 	<ul style="list-style-type: none"> - Kontrolrik eza - Sintomak eragitea - Txertorik ez
Giro ekologiko egokia	<ul style="list-style-type: none"> - Ingurumena zaintzea - Ingurumen hezkuntza 	<ul style="list-style-type: none"> - Haizearen, uraren eta beste elementu batzuen kontaminazioa - Ingurumen bandalismoa

Behar hauekin honako tratu txarrak erlazionatzen dira:

- *Tratu txar fisikoak*: ustekabekoa ez den eta umearengan kalte fisikoa edo gaixotasuna eragin dezakeen ekintza.
- *Zabarkeria*: oinarrizko behar hauek asetuak ez dituenen.

BEHAR KOGNITIBOAK

Beharra	Prebentzioa	Lotutako arriskuak
Estimulazio sentsoriala	<ul style="list-style-type: none"> - Zentzumenak estimulatzea - Estimuluak dituen ingurunea: ikusmenekoak, entzumenezkoak, ukimenekoak... - Estimuluen kantitatea, bariedadea eta kontingentzia - Interakzio ludikoa familian; estimulazio planifikatuta eskolan - Hizkuntza-estimulazioa familian eta eskolan 	<ul style="list-style-type: none"> - Gabezia sentsoriala - Pobrezia sentsoriala - Estimuluen monotonia - Erantzunaren kontingentziarik eza - Eskola-curriculum ez-globala, ez-sekuentziatuta, ez-esanguratsua, etab. - Hizkuntza-estimulaziorik eza
Azterketa fisikoa eta soziala	<ul style="list-style-type: none"> - Objektuetan, jostailuetan, elementu naturaletan eta pertsonetan aberatsa den ingurune fisiko eta sozialarekin kontaktua izatea - Ingurune fisikoak eta sozialak aztertzea - Txikienei "segurtasun-oinarria" eskaintzea, haiekin esplorazioa partekatzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Inguru pobrea - Esplorazioan laguntzarik ez izatea - Esplorazioa helduekin eta berdinekin ez partekatu
Eskolarizazioa	<ul style="list-style-type: none"> - Eskolan integratzea - Errendimendu eta bizitzako eskola 	<ul style="list-style-type: none"> - Ez eskolatzea - Absentismo eskolarra - Porrot eskolarra - Ongizate eta bizitza kalitaterako ez hezteak.
Errealitate fisikoa eta soziala ulertzea	<ul style="list-style-type: none"> - Galderei kontingentziaz entzutea eta erantzutea - Egia esan. Bizitzaren, sufrimenduaren, plazerraren eta heriotzaren ezagutzaren parte izatea - Bizitzaren, harremanen eta loturen ikuspegi erreala - Jarrerak, balioak eta arauak transmititzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Ez entzutea - Ez erantzutea - Une desegokietan erantzutea - Gezurra esan - Errealitatea ezkutatu - Ikuspegi ezkorra - Anomia edo balio antisozialak - Dogmatismoa

	- Desadostasun eta desberdintasunekiko tolerantzia: arraza, sexua, klase soziala, elbarritasuna...	- Arrazakeria
Ingurune fisiko eta sozialarekin: irudimenezko arrisku faktoreak	- Bere beldurrak entzutea, ulertzea eta horiei erantzutea: abandonuari beldurra, anai-arreben arteko lehia, gaixotasunari eta heriotzari beldurra - Beldurra adierazteko aukera - Beldurrak sustatzen dituzten hitzak eta ekintzak saihestea: hitzeko indarkeria, fisikoa, eztabaida desegokiak...	- Ez entzutea, ez erantzutea - Ez lasaitzea - Inhibizio emozionala - Hitzeko indarkeria - Indarkeria fisikoa ingurunean - Mehatxuak - Kontrola galtzea - Inkoherentzia harremanean

Behar hauekin honako tratu txarrak erlazionatuak daude:

- *Zabarkeria*: oinarrizko behar hauek asetuak ez dituenen.
- Familia eta eskola-sistemako ekintzen ondorioz, *garapenean atzerapena* izatea.

BEHAR EMOZIONALAK ETA SOZIALAK

Beharra	Prebentzioa	Lotutako arriskuak
Soziala: segurtasun emozionala	- Baldintzarik gabeko atxikimendua: onarpena, eskuragarritasuna, eskaerei erantzun egokia ematea eta gaitasuna - Ukipen intimoa: ukimena, ikusmena, hizkuntza, etab. - Kontrolatzeko gaitasuna/ babesteko gaitasuna: Haurraren kontrol gaitasun falta eta arriskuetatik babesteko gaitasunik eza - Gatazkak moral inductiboarekin konpontzea: azalpenak, adinaren araberako eskakizunak...	- Baztertzea - Absentzia - Eskuraezinak - Ez hautematea - Ez interpretatu - Ez erantzun - Kontingentziaz ez erantzutea - Inkoherentzia erantzunean - Autoritarismoa - Maitasuna kentzeko mehatxua
Soziala: gizarte-harremanen sarea	- Berdinekiko adiskidetasun- eta laguntasun-harremanak - Berdinekiko harremana eta elkarrekintza sustatzea familian eta eskolan	- Isolamendu soziala - Lagunen banaketa luzeak - Lagunekin harremanetan jartzeko ezintasuna

	<ul style="list-style-type: none"> - Seme-alabak lagun dituzten familien baterako jarduerak - Haurren talde edo elkarteetan sartzea 	<ul style="list-style-type: none"> - Lagunen debekua - Aspertzeak - Arriskuko lagunak
Partaidetza eta autonomia progresiboa	Eragiten dionaren inguruko erabakietan eta kudeaketan parte hartzea, eta familian, eskolan eta gizartean norberaren eta besteen alde egiteko aukera izatea	<ul style="list-style-type: none"> - Ez entzutea - Kontuan ez hartzea - Mendekotasuna
Sexualak: jakin-mina, mugapena eta kontaktua	<ul style="list-style-type: none"> - Galderei erantzutea - Jolasetarako eta autoestimulazio sexualerako baimena - Abusuetatik babestea 	<ul style="list-style-type: none"> - Ez entzutea, ez erantzutea, engainatzea, zigorra haurren adierazpenengatik - Sexu-abusua
Ingurune fisiko eta sozialean: elkarrekintza ludikoa	<ul style="list-style-type: none"> - Familiarekiko interakzio ludikoa amarekin, aitarekin eta beste senide batzuekin - Berdinekin jolastea 	<ul style="list-style-type: none"> - Denborarik ez izatea, gurasoentzako irisgarritasunik ez izatea - Gurasoen bizi-kutsu tristea edo itzalita - Berdinen absentzia - Jostailurik edo objekturik eza - Jostailu desegokiak

Behar hauekin honako tratu txarrak erlazionatzen dira:

- *Tratu-txar emozionala*: iraindu, abandonuarekin mehatxatu, haurren interakzio-ekimenak blokatzea, baztertzea, isolatzea, beldurrak sortzea, etab.
- *Abandonu emozionala*: eskuragarritasun eza, eskaerei ez erantzutea edo axolagabetasuna.
- *Abandonua*: haurra nonbait uztea aldi baterako edo betirako, arrisku larrian jarriz.
- *Abusu sexuala*: adinaz, botereaz, indar fisikoaz, mehatxu-gaitasunaz, etab. baliatuz, adingabearekin sexu-jokabideak izatea.
- *Lan-esplotazioa*: haurra, egokiak ez diren lanak egitera behartzea.
- *Ustelkeria*: haurra jarduera antisozial batean inplikatzeko.
- Gurasoaren *ez-gaitasuna* umearen jokaera kontrolatzeko.
- Seme-alaba transexuala, homosexuala edo bisexuala *ez onartzea*.
- *Hezkuntza sexista*.

1.6.3. Erresilientzia oinarritutako modelook

Pertsona batek, beste pertsona batengandik jasotzen dituen ekintza asaldatzaileei edo egoera deserosoei aurre egiteko duen gaitasuna da erresilientzia; hau da, indarkeriako egoeretatik, egoera traumatikoetatik, egoera mingarrietatik, etab. errefortzatuta

ateratzeko duen gaitasuna. Horregatik, Jorge Barudyk, neuropsikiatra, haur-psikiatra, psikoterapeuta eta familia-terapeuta, haurrak ondo garatu eta heldutasuna lortu dezaten, bere beharrak asetuak izateko eskubidea dutela azpimarratzen du Maryorie Dantagnan-ekin batera (2005). Hau dela eta, gizarteak, hurrei, osasuntsu garatu daitezten, behar dituzten zaintzak, babesa eta hezkuntza emateko ardura du. Horrela, jarrera etikoa eta jokabide eskuzabalak dituzten herritar helduak izateko; bere buruarekiko eta besteekiko errespetuan oinarrituz, harremanak izateko gai direnak. Izan ere, garapen-nahasmenduek, jokabide oldarkor eta bortitzek eta bestelako sufrimenduetan adierazpenek, familiako, erakundeetako edota gizarteko indarkerien biktimak izatearekin lotura handia dute. Beraz, haurren tratu txarrak eta horien ondorioak saihesteko, zaintza eta tratu onaren dinamiketan oinarritzea beharrezkoa da.

Tratu ona, gizakiek biologikoki duten berezko gaitasuna da, umeak ondo tratatzean datzana. Alabaina, ikerketa desberdinen arabera, haurren garunaren eta nerbio-sistemaren heldutasuna, helduen mundutik, batez ere gurasoengandik, jasotzen duten maitasunak, estimulazioak eta zainketak baldintzatzen du. Horregatik, nerabezaroan, eta helduaroan gero, osasun mental eta fisiko ona izateko, txikitatik tratu onak jasotzea ezinbestekoa da (Jorge Barudy eta Maryorie Dantagnan, 2005).

Hau dela eta, Jorge Barudyk (1998) bere teoriaran, guraso eskumenak, hau da, garapen osasuntsua ziurtatuz, seme-alabak zaintzeko, babesteko eta hezteko gaitasun praktikoak, tratu ona bermatzeko irizpide garrantzitsu bat bezala definitzen ditu. Gaitasun hauek izatea, umeetan jasotako tratu onaren emaitza dira. Gaitasun hauek ez dituztenean, aldiz, hauen arrazoiak gurasoen historia pertsonal, familiar eta sozialetan daude, hau da, baliteke tratu txarren biktima izana, jasotako babes-neurriak desegokiak edo nuluak izatea, pobrezian bizi izana...

Honek, umeari, atxikimendu eta sozializazio nahasmenduak, trauma larriak eta erresilientziaren prozesuan alterazioak eragiten dizkio; zeinak, nerabezaroan, indarkeriako portaeretan, delinkuentzian, sexu-abusuetan edo drogen eta alkoholaren mendekotasunean bilakatu daitezke. Gainera, tratu txar hauen ondorio diren tragediak, etorkizunean, haur hauek izan ditzaketan guraso-eskumen ezaren oinarria izan daitezke. Hortaz, haur hauek identifikatzea, babestea eta dituzten gabeziak eta sufrimenduak gainditzeko laguntza terapeutikoa eskaintzea, tratu txarren belaunaldiz belaunaldiko Saioa Oderiz Zubieta

transmisioa saihesteko oso eraginkorra dela defendatzen du Jorge Barudyk (1998). Bestalde, arazoak dituzten gurasoei laguntza sozial, hezitzaile eta terapeutikoa eskainiz, adingabeaz arduratzeko gaitasuna garatzen laguntzen zaie.

Barudy-k dioten bezala, guraso-eskumenak, gurasotasun sozialaren parte dira eta gurasoek bere seme-alaben beharrei erantzuteko (elikatzeko, zaintzeko, babesteko eta hezkuntza ona emateko) dituzten gaitasunak dira, pertsona osasuntsu, on eta enpatikoak izan daitezten. Hortaz, gaitasun horiek dituen gurasoak, gurasotasun osasuntsua eta trebea eskaintzen du; aldiz, gaitasun horiek ez dituenen, eskumenik gabeko eta tratu txarreko gurasotasun bat da. Beraz, honako hauek dira gurasoek izan behar dituzten funtsezko gaitasunak:

- *Seme-alabei atxikitze gaitasuna:* gurasoek seme-alabak atxikitzeko dituzten baliabide emozional, kognitibo eta jokabidekoak dira.
- *Enpatia:* umeei edo nerabeek, beren beharrak adierazteko erabiltzen dituzten emozio- eta keinu-adierazpenak ulertuz, seme-alaben barne-bizipenak hautemateko gaitasuna. Enpatiaren nahasmendua, atxikimendu nahasmenduari erlazionaturik dago.
- *Hazkuntza-ereduak:* haurren zaintza-eskaerei, babesari eta heziketari erantzuteko gaitasuna izatea.
- *Sare sozialetan parte hartzeko eta baliabide komunitarioak erabiltzeko gaitasuna:* familia- eta gizarte-sareen laguntza eskatu, eman eta jasotzeko gaitasuna.

Hau dena kontutan hartuta, Manciaux, Vanistendael, Lecomte y Cyrulnik-ek (2003) honela definitu zuten erresilientzia: *“Erresilientzia pertsona batek edo talde batek bere burua ondo garatzeko duen gaitasuna da, etorkizunean proiektatzen jarraitzeko duen gaitasuna, nahiz eta ezegonkortze-gertaerak, bizi-baldintza zailak eta batzuetan trauma larriak izan”*. Halaz, ume baten erresilientzia, gurasoengandik, eta batez ere, amarengandik, jasotzen dituen tratu onen emaitza da. Hau gurasotasun erresilientzia da eta honi esker seme-alabei afektiboki laguntzeko gai dira eta bizitzako gertaerak eta nahasmenduak etengabeko prozesu baten parte direla transmititzen diete. Gainera, gurasoak, adingabeari, bere bizitzan aurkitzen dituen zailtasunak ulertu eta gainditzeko eskaintzen dion laguntza, hazkunde iturri bat da.

Beraz, oso garrantzitsua da gurasoek ezintasuna edo eskuragarritasun falta dutenean, haurrari ondo garatzen lagunduko dion beste heldu baten presentzia. Hirugarren pertsona hau, eskolako helduak izan daitezke, eskola baita ikasle askorentzat, etxea ondoren, tratu onak eta segurtasuna jasotzen duten bigarren zaintza-lekua, eta batzuetan bakarra. Hona hemen erresilientzia-ereduetan oinarritutako zenbait prebentzio- eta sendatze-ekintza (Jorge Barudy, 1998):

- Haurrak, gutxienez heldu esanguratsu batekin, lotura afektibo seguruak, fidagarriak eta etengabeak izateko aukera izan behar du.
- Esperientziei zentzua edo esanahia emateko harreman-prozesuak erraztea; hau da, bizi den errealitatearen inguruan kontzientzia hartzea eta bere irudikapena erraztea.
- Babes soziala ziurtatuz, nerabeen sare psikosozial afektiboen laguntza erraztea.
- Guztien parte hartzea erraztea eta bultzatzea.
- Errespetuaren inguruko hezkuntza prozesuak sustatzea.
- Poza eta umorea sustatzen duten esperientziak bultzatzea.
- Sormena eta artearen garapena sustatzea.

Ondorioz, Jorge Barudy-k dio adingabeari, indarkeriaren edota familiaren manipulazioaren ondorioz duen hutsune afektibo eta sufrimendua erresilientzera lagundu behar zaiola eta gurasoei, guraso-gaitasunak hobetzeko baliabideak eman behar zaizkiela. Izan ere, azkeneko hau eragin handia du haurrak, bere etorkizuneko seme-alabak hazteko eta hezteko moduan.

1.7. Marko legala

Azken denboraldian, haurtzaroaren inguruko politika sozialak jasan duen aldaketa nabariaren ondorioz, babesik gabeko adingabeei, gizartearen aldetik, babes ematearen garrantzia areagotu egin da. Beraz, adingabeen babeserako erakundeak eta haurren etxeen erregulazioak zehazten dituen Gizarte Ongizateko Legea, mugatu eta zehaztu egin da. Honek, aldaketa eta garapen prozesu baten ondoren, Nafarroako Komunitate Erkidegoan zegoen I. eskuliburuaren ordezkapena eraginez; "II. Eskuliburua, Nafarroako Foru Komunitatean haurrak babesteko prozeduraren esparruan" (2019) honetan, bost

atal desberdinetan banatuta, lehen mailako baliabide bakoitzaren zeregina zehazten da eta sareko lanaren garrantzia azpimarratzen da.

Gida honen lehenengo liburukinean azaltzen den bezala, 1959ko azaroaren 20an, Nazio Batuen Batzar Orokorrak, Haurraren Eskubideen Adierazpena onartu zuen, estatu desberdinen legeetan eskubideak zehaztuz, haurtzaroko babeserako oinarritzko alderdia bihurtuz. 1978ko konstituzioak ere, eragin handia izan zuen aldaketan. Nafarroako Gobernuak argitaratutako *“Nafarroako Foru Komunitatean, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Plana”*-n (2002) azaltzen den bezala, 1978ko Espainiako Konstituzioak, pertsonen duintasuna, bakoitzak dituen eta bortxatu ezin diren eskubideak, nortasunaren garapen askea eta, legea eta besteen eskubideak errespetatzea, ordena politikoaren eta bake sozialaren oinarri direla aldarrikatzen du. Beraz, behin betiko adingabeen babes-sistema ezartzeko helburuarekin, Kode Zibileko eta Epaitze Zibileko zenbait artikulua aldatu zituzten. Gainera, abandonu kontzeptua ordez, babesgabetasun kontzeptua ezarri zen; erakunde publiko eskudunei, babesgabetasun egoera larrietan, adingabearen tutoretza emanaz.

Ondoren, 1959ko adierazpena osatuz, 1989ko azaroaren 20an Nazio Batuen Batzar Orokorrak, Haurraren Eskubideen Konbentzioa onartu zuen. Bertan, erakundeek hartzen dituzten neurrien abiapuntu bezala, haurraren interesak eta iritziak zehazten ditu. Halere, urtarrilak 15eko 1/1996 Lege Organikoarekin adingabeen babes erakundeetan egokitzapenak egiten dira (Nafarroko Gobernuak, 2019:12-17).

Nafarroako Komunitate Erkidegoari dagokionez, abenduaren 5eko, 15/2005 Legeak, hau da, Sustapeneko, Arretako eta Haurtzaro eta Nerabezeroaren Babeserako Legeak, Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioak, bere lurralde-eremuan, babes kontuen arduraduna dela zehazten du eta Gizarte Zerbitzuen, abenduak 14ko 15/2006 Lege Foralak, arreta soziala, biztanle guztientzako eskubidea izatea bultzatzen du. Gainera, ekainak 17ko, 69/2008 Foru Dekretuan, Adingabeenganako Arreta atalean, informazio, aholkularitza, balorazio eta nazio eta nazioarteko adopziorako laguntza zerbitzuak agertzen dira.

Bukatzeko, 2015eko abuztuan, haurtzarorako eta nerabezarorako babes sistemak aldatu ziren eta uztailak 22ko 8/2015 eta uztailak 28ko 26/2015 lege organikoak ezarri ziren. Honek, adingabeak, trebatzeko ahalmena duten eta eskubideak dituzten pertsona

bezala ikusteko garrantzia azpimarratzen du eta adingabeen (bortizkeria/ezgaitasunaren biktimak) eta Babeseko Entitate Publikoen konpetentziak indartzen ditu:

- *Eskubide-subjektuak*: babeserako, entzunda izateko, erabakiak hartzerako orduan parte-hartzeko, informazioa jasotzeko, legezko asistentziarako,... eskubidea.
- *Eskubideak trebatzeko mailakako ahalmena*: 12 urtetik aurrera umeei galdetzen zaizkie beren ongizaterekin zerikusia duten alderdiak, adibidez, norekin bizi nahi duten.
- *Entitate Publikoen Konpetentziak*: gurasoen aldez aurreko baimenik izan ez arren, beharrezkoa denean, familia-harreraren ardura hartzea eta bisitak arautzea eta etetea, adopzio-neurriak proposatzea...

Hortaz, Nafarroako Administrazio Publikoek adingabeen ongizatea ziurtatzeko aurrera eramán diren arreta jokoerak, hurrengo printzipioekin bat egiten dutela azaltzen da "*Nafarroako Foru Komunitatean haurrak babesteko prozeduraren II. eskuliburua. 1. liburukia. (2019)*"-nean:

- Bere interesetatik abiatuta eta edozein interes legalaren gainetik, adingabearen interesak bermatzea.
- Adingabeari eragiten dion edozein neurrik, izaera hezitzailea eta sozializatzailea izan behar du.
- Adingabearen integrazio familiar eta soziala bilatzea; beti ere, bere interesetarako eta ongizaterako kaltegarria ez bada, umearen iraunkortasuna bere ingurune familiar eta sozialean ziurtatuz.
- Zentroetan ematen den arreta azken neurria izango da; hau da, beste aukerarik ez dagoenean emango da; hots, gainerako neurriak ez dutelako eraginkortasunik izan edo kasuaren zirkunstantziek eskatzen dutelako.
- Babesgabetasun-egoerak eta gizarte-gatazkak saihestea, haurra maila pertsonalean eta sozialean behar bezala garatzea eragozten duten gabeziak detektatuz.

- Adingabearekiko arretan eta bere eskubideen defentsa eta sustapenean parte hartzen duten Administrazio Publiko eta erakunde pribatu desberdinen arteko lankidetzak, kolaborazioak eta koordinazioak.
- Gizartearen parte-hartzea eta elkartasuna sustatzea, eta herritarrak adingabeen eta haien familien arazoengatik inguruan sentsibilizatzea, batez ere babesgabetasun-egoera eta gizarte-arazoengatik inguruan.
- Tolerantzia, solidaritate, errespetu eta berdintasun baloreak bezalako bizikidetasun printzipioak adingabeen artean sustatu.
- Adingabea defendatzeko eta bere interesak jarraituz egiten diren jokoaren konfidentzialtasuna.
- Babeseko jokoak, objektiboak, inpartzialak eta segurtasun juridikoarekin izan behar dira, hartutako neurriak adostutako eta interdiziplinazko izaera izan dezaten.
- Instituzio desberdinek parte-hartzean, adingabe bakoitzarentzako baliabide egokiena aukeratzea.

Beraz, aurretik aipatutako legean, alde batetik, 45. artikuluan arrisku egoerak zeintzuk diren zehazten dira:

- Helduak adingabeari arreta fisiko edo psikikorik eskaintzen ez dionean, eta haren osasun fisiko edo emozionala kaltetu dezakeenean. Kasu honetan bere behar nagusien asetzea eta eskubideak oztopatzen dira.
- Adingabeak, pasarte zorrotza edo bortizkeriako patroik kronikoa izan gabe, bere garapena kaltetzen duen zigor fisiko edo emozionalaren biktima izatea.
- Familiak ezin dituen haurren gabeziak behar bezala konpentsatu, eta horrek adingabearen gizarte-bazterketa, egokitze-eza edo babesgabetasuna eragiten duenean.
- Gurasoak bananduak egonda edo ez, arazoak dituztenean eta beren beharrak, haurren beharren aurretik jartzen dituztenean.

Beste aldetik, 50. artikuluan, babesgabetasun egoerak biltzen dira. Hauek legeak betetzen ez direnean ematen dira:

- Adingabea borondatez uztea.

- Izaera kronikoa duen tratu txar fisiko edo psikiko arina edo larria; adibidez, adingabeaz sexualki abusatzea, babesgabetasunean utziz.
- Eskekotasuna, delinkuentzia edo prostituzioa eragitea edo onartzea.
- Esplotazio laborala edo beste antzeko esplotazio ekonomikoa.
- Izaera arina edo kronikoa duen zabarkeria fisiko edo emozionala.
- Adingabearen drogetan edo alkoholismoan sartzea edo uztea.
- Administrazioak kendutako zaintza ardura ez berreskuratzea.
- Adingabearen ohiko eskolatzerik eza.
- Adingabea bizi den ingurune sozio-familiarra, haren segurtasun morala edo nortasunaren garapena larriki hondatzen duenean.
- Adingabeaz arduratzen diren pertsonak drogazaleak edo alkoholikoak izatea.
- Helduek buruko nahasmendu larriak dituztenean, eta horrek adingabearekiko dituzten betebeharrak betetzea eragozten dienean.
- Zaintzeko gaitasuna ez dutenean edo pertsona hauek falta direnean.

Azkenik, 7/2009 Foru Dekretuan 15/2005 Foru Legeko garapen partziala onartzen da eta honako alderdiak nabarmentzen dira (Nafarroako Gobernua, 2019:12-17):

- Babesgabetasun-egoeren ebaluaziorako irizpideak.
- Helburuak eta akzio babesleetako programak.
- Akzio babesleko eskumen-mailak.
- Arrisku-egoeren maila desberdinak.
- Babesgabetasun-egoeren adierazpenerako prozedura orokorra.
- Babes administratiboaren gaineko prozedura orokorra.
- Borondatezko zaindariaren gaineko prozedura orokorra.
- Familiaren harreraren gaineko prozedura orokorra.

1.8. Babesgabetasun egoera edo maila desberdinak

Haurra bizitzen ari den babesgabetasun egoeraren larritasun-mailarekin erlazionatutako kontzeptuetan, Nafarroako Gobernuak (2019) sei desberdin bereizten ditu:

- *Arriskurik gabekoak*: familian egoera sozioekonomiko txarrik ez dagoen, haurraren beharrak ondo asetutak daudenean, gurasoaren eta haurraren arteko

harremana egokia denean eta bere eboluzio-aldirako garapen fisiko, emozional, sozial eta kognitiboa egokia denean egoera normalizatuak dira.

- *Babesgabetasunarekiko kalteberatasuna*: familiako kideek edo baten batek arazoak izan ditu (alkoholismoa, drogen kontsumoa, arazo fisiko, mental edo psikologiko larriak, erasoak...), eta arazo horiek eragina izan dezakete haurren garapenean, babesean eta etorkizunean.
- *Babesgabetasun arina*: helduak, adingabearengan, etorkizunean arazoak sor diezazkiokeen, hezkuntza, zaintza, tratu edo harreman desegokiarekin zuzentzen da.
- *Babesgabetasun moderatua*: helduak, eremu edo alderdiren batean, hezkuntza-, zaintza-, tratu- edo harreman-jarraibide desegokiak erabiltzen ditu adingabearekin, eta horiek etorkizunean arazoak sor diezazkiokete.
- *Babesgabetasun larria*: adingabeak asetu gabeko beharrak ditu, bere osasunari eta garapenari eragiten diotenak.
- *Babesgabetasun oso larria*: osasunean eta garapenean eragin dioten asetu gabeko oinarrizko beharrak ditu haurrak. Kasu honetan, heldua ez da babes-betebeharrak betetzeko gai, eta, horren ondorioz, ezin da bermatu adingabearen premiak beteko direnik.

Ignacia Arruabarrena eta Miguel Ángel Hurtadok (2018), aurrekoa garatuz, beren esanetan, lehendabiziko hiru babesgabetasun mailak, arriskurik gabekoak kenduta, udaleko gizarte-zerbitzuek artatu behar dituzte, eta azkeneko biak, berriz, lurraldeko gizarte-zerbitzuen erantzukizuna dira. Hortaz, adingabearen egoeraren larritasuna zehazteko, guraso-portaera mota, maiztasuna eta intentsitatea, eta, jokabide horrek haurrari edo nerabeari, maila fisikoan edo psikikoan (arloan emozionala, kognitiboa, soziala eta sexuala), eragin dion edo eragin diezaiokkeen kaltea kontuan hartu behar dira. Hala ere, erabaki bat hartzerako orduan, ez da soilik babesgabetasunaren larritasuna kontuan hartu behar.

1.9. Jarduketarako printzipio teknikoak

Alde batetik, “*II. Manual de procedimiento en el marco de la Protección Infantil en la Comunidad Foral de Navarra. Volumen 1 (2019)*” eta “*Manual de intervención en*

situaciones de desprotección infantil en la Comunidad Foral de Navarra (2003)” eskuliburuetan jarduketarako kontuan hartu behar diren honako printzipio teknikoak zehazten dira:

1. Umeek eta nerabeek, tratu txarretatik, erasoetatik eta zabarkeriatik zaindutak eta babestutak izateko eta bortizkeriarik gabeko ingurunean bizitzeko, eskubidea dute.
2. *Umeen eta nerabeen babesa partekatutako ardura bezala*: adingabeei, behar duten babesa eskaintzeko, gurasoek edo tutore legalek, laguntza informaleko (familia eta adiskideak) eta formaleko (Lehen Mailako Arreta Sozialeko, Osasuneko eta Heziketako Gizarte-Zerbitzuak) sistemen laguntza jaso dezakete. Hau da, helduek ezin dutenean babes hori eman eta laguntza informalek ezin dutenean arazoa konpondu, Gizarte Zerbitzuak dira esku hartzen dutenak:
 - a. Adingabeen eskubideak zaindu eta babesteko.
 - b. Heldu arduradunei, guraso-betebeharrak betetzeko gai izan daitezen, beharrezkoak diren zerbitzu eta baliabideak eskaintzeko.
 - c. Haurra edo nerabea bere familiarengandik bereiztea ekiditeko.
 - d. Beharrezkoa izatekotan, gurasoen eginkizunetan aldi baterako ordezkapen bat edo adingabearentzako familia-ingurune alternatibo, egonkor eta seguru bat proposatzeko.

Beraz, adingabeen babesa, elkarlanean eta kooperazioan egin beharreko gizarteko kide guztien betebeharra da.

3. *Diziplina eta sektore anitzeko eta sareko lanaren beharra*: Komunitate-Zerbitzuak eta Haurrak Babesteko Oinarrizko Zerbitzuak eta Zerbitzu Espezializatuak, haurren eskubideak eta babesa bermatzea helburu duen babes-sistema bakar bat izan behar dira.
4. *Kasuaren erantzukizun teknikoa eta erabakia hartzearen ardura identifikatzea*: kasu bakoitzean, esku-hartzea zuzentzeaz eta koordinatzeaz arduratuko den zerbitzu jakin bateko profesional bat esleitzen da. Hala ere, beste profesional batzuen parte-hartzea eta laguntza beharrezkoa da.
5. *Adingabeen Babes Sozialeko Sistemaren Helburuak*: haur eta nerabeen eskubideak babestu; adingabeen eta beren familien ongizatea ziurtatu; beren

- oinarrizko beharrak asetzen duen ingurune egonkor eta seguru bat ziurtatzea eta garapen osasuntsurako beharrezkoak diren bizikidetasun-ingurunea eta atxikimendu-irudien eta erlazio adierazgarrien iraunkortasuna bermatzea.
6. *Haurraren edo nerabearen interes nagusia:* Haurraren Babes Sistemak, umearen interes, eskubide eta beharretatik abiatuta esku-hartu behar du.
 7. *Haurraren beharren eta baliabideen beharrekiko egokitzapenaren ikuspuntua:* Haurren Babes Sistemako esku-hartzeak eta baliabideak, adingabearen eta bere familiaren beharrei (fisiko, kognitibo, afektibo eta sozialak) egokitu eta erantzun behar diete.
 8. *Familia, haurraren garapenerako egokia den ingurune bezala:* horregatik, Haurrak Babesteko Sistemak familia babestu behar du, batez ere gizartean desabantailan daudenean. Adingabeei, haien beharrizan eta interesei erantzun ahal denean, familia barruan emango zaie arreta, gurasoen parte-hartzea sustatuz. Hala ere, beharrezkoa bada, familia-eremutik kanpo, adingabeari bere izaera garatzen lagundu behar zaio eta hezkuntza-arreta eman behar zaio.
 9. *Prebentzio eta esku-hartze goiztiarraren garrantzia:* Haurrak Babesteko Sistemak, adingabeen beharrak asetzeko gabezia larriak daudenean jarduteaz gain, ekintza eta baliabideen bidez, haurren ongizatea eta bizi-kalitatea sustatu behar ditu, beren gaitasun gorenak garatu ditzaten eta, horrela, aukera asko izan ditzaten.
 10. *Detekzio eta esku-hartze goiztiarrera bideratutako ekintzen lehentasuna:* pronostiko positiboa lortzeko, horrelako kasu bat identifikatzea garrantzitsua da; izan ere, haurraren eta haren familiaren errehabilitazio-probabilitatea, tratu txarren edota abandonuen iraupena eta larritasunaren araberakoa da. Normalean, eragile komunitario eta sozialak izaten dira kasuari buruzko susmoak edo berriak izaten dituzten lehenak; horregatik, horrelako kasuak ezagutarazteko, sare bat osatzea (herritarrek, profesionalek eta zerbitzu komunitarioek osatuta), koordinatzea eta mantentzea garrantzitsua da.
 11. *Erabakiak hartzerakoan kalitatea izatea:* Haurren Babes Sistemaren erabakien kalitatea ziurtatzeko honako hau hartu behar da kontutan:
 - a. Adingabearen eta bere familiaren egoeraren ebaluazio pertsonal, konpletu, egiaztatu eta eguneratu batean oinarritzen da.

- b. Haurraren, gurasoaren edo tutorearen eta profesional edo zerbitzuen parte-hartzea eredu nagusia da.
- c. Taldeak modu interdiziplinatuan egiten dira.
- d. Gaitasun tekniko egokia duten profesionalek eramaten dute aurrera.
- e. Denbora tarte egokian aurrera eramaten dira.
- f. Etengabe ikuskatzen dira.

12. *Adingabeen eta bere guraso eta tutoreen parte hartzea erabakiak hartzerakoan eta esku-hartze prozesuan*: ebaluazioan, esku-hartzearen planifikazioan eta erabakiak hartzean, adingabearen, bere guraso edo tutoreen eta familiako beste kide adierazgarri batzuen inplikazioa bultzatu behar da. Halaber, hamabi urte bete dituzten umeak erabaki administratiboetan entzunak izan behar dira

13. *Esku-hartze minimoarekin eta ahalik eta denbora gutxien, alternatiba hobea baten bilaketa*: Haurren Babes Sistemak, adingabearen eta haren familiaren bizitzan ahalik eta gutxien sartuz, adingabeari falta zaion babesa eskaini behar dio.

14. *Aniztasunarekiko sentikortasuna eta errespetua*: familia horren ohiturak, kultura, sinesmenak, etab. errespetatu behar dira adingabearentzako kaltegarriak ez diren bitartean.

15. *Erreferentziazko marko teorikoak*: Haurren Babes Sistemaren esku-hartzea, teoria desberdinetan oinarrituta egon behar du. Azken urteetan honako hauetan oinarrituta egon dira:


- a. Trauma erlazionaleko modeloa (Bromberg, Guerra Cid).
- b. Atxikimenduaren teoria (Bowlby, Ainsworth).
- c. Mentalizatzearen teoria (Fonagy, Bateman).
- d. Haurren beharren teoria (Lopez).
- e. Modelo ekologiko-sistematikoa (Minuchin, Andolfi).
- f. Erresilientzian oinarritutako modeloa (Cirulnyk, Barudy).
- g. Faktore babesleeta indartze modeloak (Rutter).

16. *Hobekuntza jarraituaren bilaketa*: Haurren Babes Sistema etengabe hobetzen egon behar da. Horretarako, material eta giza baliabideez eta beharrezkoak diren eta beharrei egokitzen diren azpiegituraz hornitu behar da eta pertsonal

gaitua, etengabeko prestakuntza-sistemak eta funtzionamendua eta emaitzak kontrolatzeko, gainbegiratzeko eta ebaluatzeko sistemak izan behar ditu.

Beste alde batetik, Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialeko Departamentuak (2019) defendatzen du Hautzaroko Babes Zerbitzuek, tratu oneko politiken bidez, babesgabetasun-egoerak saihestuz eta esku-hartuz, adingabearen eta bere familiaren beharrak asetzeko politikak eta ekintzak antolatu behar dituztela. Lehen esan bezala, babesgabetasun egoerak honako hauek izan daitezke:

- *Babesgabetasun arina*: gurasoek zaintza lanean defizit arina duten arren, adingabearen beharrei arreta egokia ematen diote. Adibidez, aita edo ama lanik gabe geratu da, eta adingabearen beharrak behar bezala asetzen saiatzen badira ere, egoerak eragin dien estresak, guraso eta seme-alaben arteko harremanean eragin du.
- *Neurrizko babesgabetasuna*: gurasoek larritasun ertaineko modu desegokian betetzen dituzte babes-betebeharrak. Adibidez, zabarkeriaz elikatzen den familia, edo alkoholaren edo drogen mendekotasuna duen guraso bat duen familia, edo aita fundamentalista bat duen familia, zeinak ez du onartzen garaiak aldatu direla eta emakumea eta seme-alabak menpean jarraitu dezaten nahi duena, edo itota dagoen guraso bat duen familia, bizitza familiarraren presiopean sentitzen dena eta bertan poztasuna aurkitzeko gai ez dena, etab.
- *Babesgabetasun gogorra*: gurasoek larritasun handiko modu desegokian betetzen dituzte babes-betebeharrak. Tratu txar emozional oro babesgabetasun gogortzat hartzen da; esate baterako, familia konposatu batean, zeinetan guraso bakoitzak bere seme-alabak ditu, adingabeetako batek heldu baten aldetik mespretxuak, umiliazioak eta “ez duzu ezertarako balio”, “dena gaziki egiten duzu”, “zure anaia/arreba edo anaiordea/arrebaordea zu baino hobetagoa da”, “ez dakizu ezer egiten”,... bezalako mezuak jasaten ditu.
- *Babesgabetasun oso gogorra*: adingabeak ez du behar duen laguntza moral edo materiala jasotzen, babes-beharrak betetzeko ezintasunagatik, ez betetzeagatik edo gaizki betetzeagatik. Adibidez, haurra, abusu sexualen biktima izatea.



2 Irudia. Haurak Babesteko Sistema. Nafarroako Gobernu

2. irudian ikusi daitekeen bezala, kontzeptu legalei dagokionez, arriskua eta babesgabetasuna daude. Kontzeptu teknikoetan, aldiz, babesu eta babesik eza. Lehendabizikoa, haurren tratua ona sustatzearekin eta "babesgabetasunarekiko kalteberatasunarekin" lotutako egoerak hartzen ditu barne. Horregatik, Nafarroako Gobernuaren eta haur eta familia zuzendariordetzaren helburua, babesgabetasunaren biktima den haurra babesteko sistema esku-hartzaile bat garatzea da; horretarako, tratua ona sustatzeko eta babesgabetasun egoerak saihesteko neurriak erabiliz. Babesik eza, ordea, babesgabetasun arina, neurritzkoa, gogorra eta oso gogorra dira (Nafarroako Gobernu, 2019:18-35).

Esku-hartzeari dagokionez, alde batetik, prebentziozko esku-hartzea dago; honetan, "arriskurik gabeko" egoerei lotutako Sustapen edo Prebentzio Unibertsala eta babesgabetasunarekiko eta babesgabetasun arinarekiko zaurgarritasun-egoerentzako Prebentzio Unibertsala daude. Beste aldetik, birgaitzeko esku-hartzea dago; kasu honetan, espezializazio handiko eta familia-testuingurutik hurbil dauden familiak zaintzeko programekin (Lehen Mailako Arretako Gizarte-Zerbitzuak, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta EAIA) elkarlanean aritzean datza. Esku-hartze honetan, egoera oso larria denean, aldi baterako banantzea (familia berrelkartzeko programak eta aldi baterako harrerarako baliabideak) edo banantze iraunkorra (harrera iraunkorreko baliabideak eta adingabeari laguntzeko zerbitzuak) neurriak hartzen dira.

Azkenik, Haurak Babesteko Sistemako baliabideak, zerbitzu komunitarioak (hezkuntza, osasuna, arreta eta esku-hartze goiztiarra, etab.), Lehen Mailako Zerbitzu Sozialak

(Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, EAIA, eguneko zentroak, ...) eta Bigarren Mailako Arretako Gizarte Zerbitzuak (babesgabetasun-egoera oso larrietan esku-hartzen eta adingabea bere bizikidetzan nukleotik bereizteko neurria hartzen dutenak) osatzen dituzte.

Bukatzeko, hazkundera zailtasunak eragiten dituzten egoerak ahalik eta lehen detektatu behar dira, arrisku edo babesgabetasun egoera bihurtu ez daitezen, baita adingabearekin eta haren familiarekin lehenbailehen eta zailtasunak arinak direnean lan egin behar da eta zailtasun-seinaleak dituzten familiekiko esku-hartzea antolatu behar da. Beraz, sareko lanetik proposatutako babesgabetasunarekiko, kalteberatasunarekiko eta arrisku arinarekiko ekintzak, familien eskura egon behar dira.

Prebentzio hau, batez ere 5 urtetik beherako umeetan egiten da; izan ere, adin horretatik aurrera, eskola da haurraren babesgabetasuna saihesteko betebeharraren duena. Hona hemen esku-hartze maila desberdinak (Nafarroako Gobernuak, 2019:18-35, Vázquez, Blanco, Torres, Otero eta Hermida, 2014:9 eta Romero, Villar, Luengo eta Gómez-Fraguela, 2009:425):

- *Prebentzio unibertuala*: gizarteari zuzenduak, faktore estresagarriak edo arriskutsuak ez egoteko eta faktore babesleak indartzeko:
 - Komunitate-baliabideetako profesionalak, haurrekiko tratu txarrak hautemateko eta saihesteko sentikortzea eta prestatzea.
 - Osasunerako hezkuntza-foro komunitarioak sustatzea, gurasoek seme-alabak zaintzeko dituzten trebetasunak eta hezkuntza- eta afektibitate-harremanak hobetzeko: erditzea prestatzeko ikastaroak, lotura afektiboko tailerrak, gurasotasun positiboko taldeak...
 - Haur-osasuneko programak aurkeztea, familia-plangintzako baliabideak eta ikastetxeetan sexu-hezkuntza emanez, bereziki neska gazteetan, nahi ez diren haurdunaldiak saihesteko.
 - Gurasoen eta seme-alaben arteko kalitatezko lotura afektiboa, haurraren zainketa, abandonua edo gabezia afektiboaren sintomak dauden edo ez eta gurasoek arauak eta mugak ezartzearen aurrean (zigorrak edo hitzeko zuzenketa neurrigabeak) duten jarrera ebaluatzea.

- Gurasoen eta seme-alaben arteko jardunbide desegokiak hautemateko hezkuntza-komunitateko kontsultetan, tutoretzetan, etab. enpatiaz eta adeitasunez parte hartzea; horrela, diziplinazko ordezeko metodoak bilatzeko eta gurasoen eta seme-alaben arteko norgehiagoka - esperientziak geldiarazteko.
- Adinaren arabera haurrak dituen beharrak (elikadura, higiena, loa, etab.) eta garapen-aldi bakoitzak dituen zailtasunak jakinarazteko orientabide praktikoak ematea eta haurraren estimulazioa eta hazkunde emozional egonkorra sustatzeko gidak erabiltzea.
- Gurasoen puntu baliotsuak eta positiboak identifikatzea, haien ahaleginak goraipatzea eta autoestimua eta gaitasunak indartzea.
- Haurrentzako jarduerak, guraso tailerrak...
- *Prebentzio selektiboa*: arrisku arinean dauden biztanleentzat, faktore babesleak indartuz, egungo arrisku-faktoreak arintzeko:
 - Arduragabekeria-egoerak lehenbailehen identifikatzea eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen zerbitzuei kontsultatzea.
 - Babesgabetasun egoera posibleak saihesteko helburuarekin, genero-indarkeriako edota emakumearenganako abusu egoerak antzematea. Izan ere, heldu batez abusatzen den familien %30-70an, adingabeengan abusua egoten da.
 - Osasuneko, hezkuntzako eta gizarte-zerbitzuetako eragileen artean laguntza/auto-laguntzako taldeak sortzea, gurasoek, guraso- eskumenak hobetu ditzaten.
 - Alkoholarekiko edota drogekiko mendekotasuna edo nahasmendu psikiatrikoak dituen gurasoa, osasun mentaleko zentroetara bidaltzea eta antsietate- edo depresio-nahasmenduak tratatzea.
 - Gurasoen gaitasunak sustatzeko esku-hartze goiztiarreko programak diseinatzea.
 - Behar duten familiei esku-hartze sozial, familiar, laboral edo ekonomikoa eskaintzea.
 - Gizarte-langilearekin batera, familia bakoitzean aurkitzen diren arriskuei aurre egiteko helburuak, planak, estrategiak eta laguntzak zehaztea.

- Haurren osasun programako bisitak areagotzea.
 - Haurrentzako gizarte-trebetasunak irakasteko eta indarkeria saihesteko programen bitartez, ikastetxeak, familiaren jarraipen zehatza egitea.
 - Gizarte hezitzaileak auzoetako figura esanguratsua bihurtu eta gizarte eragileen sarea dinamizatzea.
- *Prebentzio adierazia:* prebentzio-mota hau oso kalteberak diren pertsonei zuzenduta dago, hau da, drogak kontsumitzen dituztenei, depresioa, antsietatea, jokabide-arazoak... dituzten biztanleei. Pertsona hauek zantzuak eta sintomak adierazi dituzte, baina oraindik ez dituzte betetzen nahasmendua izateko irizpideak (Mrazek eta Haggerty, 1994). Horregatik, prebentzio honen helburua, kontsumoa, depresioa, antsietatea edo jokabide-arazoak ez areagotzeaz gain, hau da, ez larriagotzeaz gain, hauek murriztea da. Hortaz, prebentzio adierazian egiten diren ariketa guztien helburua, drogen kontsumoari, depresioari, antsietateari edo jokabide-arazoei lotutako arazoak murriztea da. Adingabeen kasuan, normalean, jokabide-arazoak dituzten kasuak izaten dira; horregatik, prebentzio honen bidez, familian, haurren trebetasunetan eta eskolako interakzioetan, hau da, jokabide-arazoaren garapenean eragiten duten hiru faktore nagusietan, jarduten da. Horrela, aurrerago, arazo psikologikoak eta sozialak, portaera antisozial larriak eta droga-abusuak izatea saihestuz.

1.9.1. Parte hartzaileak

Lehen esan bezala, haurren babeseta eta ongizatea, gizartearen ardura da; beraz, haurrei tratu onean oinarritutako giro afektibo eta testuinguru sozial bat eskaintzeko, sareko lana ezinbestekoa da. Hortaz, honako hauek dira lanean zehar aipatu diren eta bereziki Jesús Garcíak eta Venancio Martínezek (2012) dokumentuan nabarmentzen dituzten parte-hartzaileak eta beren zereginak:

- *Irakasleak:* multzo honetan bai tutoreak eta bai espezialistak (Pedagogia Terapeutikoko irakasleak, logopeda, musikako edo gorputz hezkuntzako irakaslea...) sartzen dira. Hauek, babesgabetasun-kasu bat identifikatzeko alertan egoteaz gain, ikasleen adina eta ezaugarriak kontuan hartuta, tratu ona sustatzeko jardueren bidez; ikasgelan, ikaskuntzarako metodologia kooperatiboak erabiliz; ikastetxea, elkarbizitzarako lekua bihurtuz; lankidetzeta eta

elkarlana sustatuz; etengabeko prestakuntza-jardueretan parte hartuz; familien eta beste zerbitzu eta erakundeen parte-hartzea bultzatuz eta protokoloak ezarriz, baloreak eta bizikidetzak landu behar dute.

Gainera, behar duten familiei lagundu eta seme-alabei frustrazioak, mugak, beraien ekintzen arduradunak izaten... ulertzen laguntzeko estrategiak eskaini behar dizkiete. Hau arrakastaz gainditzeko, Nafarroako Gobernuak "Ayudar a crecer" (2005) guraso-hezkuntzako gida dioen bezala, koherentea, benetakoa, norbera izatea, bestea den bezala onartzea, enpatia, entzute aktiboa, komunikazioa, asertibitatea, autokontrol emozionala, gatazken maneia, errefortzu positiboak, hezkuntza-teknikak, etab. ezinbestekoak dira.

- *Familiak*: haurren sozializatzearen eta nortasunaren eraketaren eragile nagusiak dira. Horregatik, adingabearen ikaskuntzan, tratu onaren sustapenean eta garapenaren eragina izan dezakeen gurasoaren edozein portaera aztertu eta neurriak hartuko dira. Horregatik, oso garrantzitsua da seme-alaben hezkuntzaz arduratzea, telebistaz eta Internetez egiten duten erabileraz ere, ezetz esaten ikastea...

Beraz, Nafarroako Gobernuak (2005) azaltzen duen bezala, lehenik eta behin, haurraren garapen-unea kontuan hartuta, adingabeari nor den eta zer gaitasun eta muga dituen ezagutzen lagundu, esperimendatzen eta okertzen eta arazoei aurre egiten utzi behar zaio. Bigarrenik, adingabeari, ingurune seguru bat eskaini behar zaio, soilik hazteko eta bera izateko kezka izan dezan, eta ez gurasoen erasoetatik defendatu behar den ingurune bat. Azkenik, pertsonen arteko harremana kalitatezkoa izan behar da, non errespetua eta onarpena nagusitzen den, ideiak, pentsamenduak, iritziak... elkar-trukatzen diren eta elkarrekiko errespetu-konpromezu bat dagoen.

- *Osasun-zerbitzuak*: Lehen Mailako Arretako pediatria-zerbitzuek, bere lanarekin, haurren tratu txarrak saihestu (kontsultan, agintaritzari desafio egiteko portaerak, arreta-defizita, izaera zaila, kasketaldiak... behatuz) eta jokabide afektibo egokiei buruzko aholkuak emanez, garapenaren etapa gatazkatsuei aurrea hartuz, hazkuntza positiboko jarraibideak emanez... familiak eta ikastetxeak aholkatu eta laguntzen dituzte.

- *Beste erakunde eta elkarte batzuk:* honen barruan Gizarte Zerbitzuak, Gurutze Gorria, auzoko elkarte eta kolektiboak, Iruñeko talde prebentiboak, etab. aurkitzen dira. Hauek, familiei eta irakasleei hitzaldiak emanez, ikasleekin tailerrak eginez, materiala prestatuz... ikastetxeekin elkarlanean aritzen dira edozein indarkeria mota prebenitzeko eta diskriminazio sozial, arrazakeria eta xenofobia egoerei aurre egiteko.
- *Zaintzaileak:* profesional hauek haurren oinarriko beharrei, batez ere fisiologikoei, erantzun behar diete. Gainera, tratu ona sustatzeko, bere lana irakaslerenarekin koordinatu behar dute.
- *Administrazio eta zerbitzuetako langileak:* hezkuntza-funtzio zuzenik ez duten arren, neurriak eta ekimenak proposatzen eta hartzen dituzte bizikidetzaren hobetzeko, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko eta bizitza pertsonal, sozial eta familiarreko arazoak konpontzeko.

1.9.2. Sistemaren helburua

Helburu nagusia, familiaren eta adingabearen beharrei erantzutea da. Hau lortzeko, honako irizpideak hartzen ditu kontuan sistemak: testuinguru sozio-komunitario batean izatea; familiari laguntzeko politikak eta, Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Erakundearen Hitzarmeneko defentsan oinarrituz, kide guztien, bereziki haur eta nerabeen, garapen integrala bermatuko duten oinarriak ezartzea eta adingabeek dituzten beharrian guztiei erantzun integral eta bateratu bat ematea. Modu honetan, sexua edozein dela ere, bakoitzak bere eskubideak izango ditu eta bere garapenaren protagonista izango da.

1.9.3. Prebentzio eta esku-hartze goiztiarraren garrantzia

Haurren tratu txarrak saihestu egin daitezke; horregatik, esku-hartze goiztiarra ezinbestekoa da. Izan ere, Nafarroako Gobernuak (2017) zehazten duen bezala, Lehen Haurtzaroari eta familiari zuzendutako jardueretan datza. Modu honetan, adingabearen garapena, guraso-gaitasunen sustapena eta gizarte kohesibo eta inklusibo bat lortzeko. Beraz, Lehen Mailako Prebentzioak, adingabearen garapena kaltetu dezaketen bai izaera kognitiboko, bai eskuratutako arrisku-faktoreak gutxitzeko, biztanleriari

zuzendutako jarduerak eta egoera ahulean daudenentzako programak eta ekintzak aurkezten ditu.

Hortaz, Jesús García eta Venancio Martínezek (2012) adierazten duten bezala, kasuen detekzio eta esku-hartze goiztiarrari esker, tratu txarren errepikapena eta ondorioak gutxitu, haurra pertsona erasotzailearengandik aldendu, tratamendu psikologikoa eskaini, haren ondorioak eta baliabideak arindu eta beste tratu txarretatik babestu daiteke. Horregatik, profesionalek, tratu txarren adierazle fisiko eta portaerakoak ezagutzea ezinbestekoa da. Izan ere, adingabea ez da ausartzen jasaten dituen tratu txarrei buruz hitz egitera edo ez da konturatzen tratu txar horiek ez direla gauza normala. Gainera, gehienetan, abusuak, ustekabeen harrapatzen du umea; adingabeak ez daki zer gertatzen den, nahastuta, engainatuta edo mehatxatuta aurkitzen da. Ondorioz, ez du bizi duen egoera kontatzen, errudun eta lotsatuta sentitzen delako eta erasotzaileari, ondorioei edo nahi dituen pertsonengandik bananduta izateari beldur diolako.

Arreta Goiztiarra terminoak, azken hamarkadetan, aldaketa eta hazkunde handia jasan du. 60ko hamarkadan sortu ziren garapenean nahasmendua duten adingabeentzako lehen errehabilitazio programak. 80ko hamarkadan familiaren zereginaren garrantzia goraiatu zen eta arrisku biologiko eta sozialeko taldeak programetan integratzen hasi ziren. Gainera, arreta goiztiarreko esku-hartzea, adingabearentzat bakarrik bideratuta ez dagoelaren ideiak indarra hartzen du, izan ere, esku-hartzeak, umearen bizitzan zehar eta edozein testuingurutan egin behar dira. Azkenik, 90. hamarkadatik aurrera, esku hartzeko programen arrakasta, haurren edo nerabearen testuinguru eta ingurune naturaletan dagoelaren ideiak indarra hartzen du. Hortaz, eredu kliniko birgaitzailea, eredu bio-psiko-ekologiko bat bihurtu zen.

2010. urtean egindako balorazio baten ondoren, Arreta Goiztiarra hobetzeko helburuarekin, honako bost alderdi hauek hartu behar direla kontuan ondorioztatu zen:

- *Prestutasuna*: arreta goiztiarra haurrari eta familiari ahalik eta lehen ematea ziurtatzea.
- *Irisgarritasuna*: esku-hartzea eta zerbitzuak geografikoki ahalik eta gertuen egotea.

- *Zerbitzuen doakotasuna.*
- *Diziplinarteko lana.*
- *Zerbitzuen aniztasuna (osasun-, hezkuntza- eta gizarte-zerbitzuak).*

Beraz, Arreta goiztiarrak, adingabeen eta haien familien eskubideak eta beharrak, aukera-berdintasuna, gizarteratzea eta gizarte-partaidetza, zerbitzuen koordinazioa eta Osasunaren, Hezkuntzaren eta Gizarte Eskubideen artean planifikatutako lana izan behar ditu oinarri. Hau betetzeko helburuarekin, Nafarroan *Arreta Goiztiarreko Administrazioarteko Batzorde Teknikoa (otsailak 24ko 102/2016 Foru Agindua)* sortzen da (Nafarroako Gobernua, 2017:141-143).

Arreta goiztiarraren izaera prebentiboa, lehen urteetako esku-hartzeek garapen emozional, intelektual eta fisikoan duten eragina baieztatzen duten ebidentzia zientifikoetan oinarritzen da. Hortaz, esku-hartzeak hobetu eta guraso gaitasunak eta desberdintasunak sortzeagatik, adingabearen garapenean eragin dezaketen egoerak konpentsatzeko jarduerak sustatu behar direla defendatzen du Nafarroako Gobernuak (2017).

1.10. Eskolaren papera

Lanean zehar behin baino gehiagotan azpimarratu izan den bezala, eskola gune pribilegiatua da babesgabetasun egoerak atzemateko eta prebentzio lan bat egiteko. Horregatik, detekzio goiztiarra funtsezkoa da, legeak eskolari ematen dion ardurak bat baita. Horrez gain, garrantzitsua da kasuak modu koordinatuan tratatzea, profesionalak egindako planen bidez, non hipotesi bat partekatzen den eta bakoitzaren zeregina zehazten den. Izan ere, asko dira haurren artean aurkitu daitezkeen egoerak: bere genitalak etengabe ukitzen dituen umea, normalean klasera huts egiten duen haurra, eskuarki hamaiketakoa ekartzen ez duen ikaslea, higiene aldetik modu desegokian aurkitzen den umea, aldi oro ubeldurak izaten dituen haurra, haur ikusezinak, bere bizitzan izandako aldaketa handi batengatik (maite duen pertsona baten bat-bateko galera, etxe-aldaketa, anai-arreba berri baten jaiotza edo etorrera...) totalka hasten den haurra, etab. Hala ere, kasu hauetako batekin topatzeak ez du esan nahi babesgabetasun familiar kasu bat denik; alabaina, horrelako kasu baten aurrean zein da tutorearen lana, beste alde batera begiratu eta beste profesional baten ardurapean

uztea egoera edo ahalik eta lehen esku hartu eta konponbide bat bilatu, kaltea edo mina ahalik eta txikien izan dadin?

1.10.1. Detekzioa eta jakinarazpena

Adingabeak jasotzen duen zaintzak dituen hutsuneak, gehienetan, familiaren intimitatean gertatzen direnez, eta zaintza horren inguruan ikertzea, intimitatean sartzea edo zaintza-figurekiko errespetu falta dela dion ideia zabalduaren ondorioz, babesgabetasun egoera bat antzematea bereziki zaila da. Gainera, adingabeak, orokorrean, ez dira gai beren egoeraren berri emateko edo laguntza eskatzeko eta horregatik, normalean hirugarren pertsona batek egoeraz ohartu ohi da.

Aurrekoa kontuan hartuta, babesgabetasun egoera bat detektatzeko, hezkuntzako arloko profesionalak funtsezko bi tresna dituztela dio Nafarroako Gobernuak (2019):

- *Behaketa*: ikaslea momentu desberdinetan begiratu: klasean, patio orduan, helduekin eta gainontzeko ikasleekin duen harremana, bertaratzea... modu honetan, arrisku edo babesgabetasun egoera den ziurtatuko duten adierazleak antzemango ditu irakasleak.
- *Informazioa*: familiaren, ikaslearen eta aurreko irakasleen inguruan informazioa jaso.
 - Adingabekoarekin hitz egin: ikasleak hitzekin eta bere jarrerarekin dioen horretan arreta jarriz, susmoaren zergatia ulertzeko. Haurra entzuna eta babestuta sentitzen bada, errazagoa da adieraztea eta ulertuta sentitzea; beraz, konfiantza- eta segurtasun-giroa ezinbestekoa da.
 - Guraso edo tutore legalarekin hitz egin: familiaren egoera zein den ezagutzeko (une zail edo krisi iragankor batetik pasatzen ari diren), haurrari, laguntza eskaintzen ari zaion, jokabide-eredu jakin bat eta hezkuntza-jarraibide argiak ematen ari zaizkion, egunero bere zainketaz arduratzen diren eta familiak, kide guztien egoera hobetzeko, eskolaren laguntza onartuko lukeen ezagutzeko. Izan ere, senideen erreakzioak ezagutzeak gaia nola tratatu behar den zehazten laguntzen du.

Hezkuntza-eremutik antzeman ahal izateko, adingabearen zaintzan eragina izan dezaketen egoerak edota faktoreak detektatzeko profesionalen sentsibilitatea garatu

behar da. Honako hauek dira somatu daitezkeen arrisku-faktoreak (Nafarroako Gobernua, 2019: 5. liburukineko 23-30):

- *Bat-bateko estres-egoerak*: familia-dinamiketan eta adingabearen arretan defizitak eragiten dutenak; adibidez, kide esanguratsuen galera bat-batekoa edo traumatikoa, gurasoen lan-baldintzetan aldaketak, gaixotasun larriak...
- *Zaintzari eragin diezaioketen arrisku- edota kalteberatasun-faktoreak* egotea: horrek ez du esan nahi babesgabetasun-egoera bat dagoenik, baina bai, ahultasun-egoeran dagoen adingabe bat dela.
 - Banakako arrisku-faktoreak (Wolfe, 1987; Díaz Aguado et al, 1995; Milner, 1990):
 - Gurasoenak: haurtzaroan tratatu txarren biktima izan zen, eta ez du hazteko eredurik; modu hiperaktibo, neurrigabe eta oldarkorreak erantzuten die adingabearen eskaerei; adingabearen portaerek erraz gainditzen dute; beraz, estresarekiko tolerantzia txikia du; ez daki gatazkak konpontzen, eta horrek arazoa ukatzen edo modu oldarkorreak erreakzionatzen eragiten dio; ez du hezkuntza-estrategia nahikorik; nahasmendu emozional, mental edota fisikoak ditu; autoestimu eta mendekotasun emozional txikia du; haurraren premien asetzea eta ulertzea galarazten dion ludopatia, droga-mendekotasuna edo alkoholismo arazoak ditu; enpatia eta sentsibilitate gutxi du; portaera-estilo eta kontzeptual zurruna du edo haurraren beharrian aldakorretara egokitzea eragozten dion maila intelektual baxua du.
 - Adingabearenak: goizegi jaio zen, eta pisu gutxirekin; izaera zaila du; urritasun fisiko edo psikikoak ditu; gaixotasun neurologiko kognitiboak edo uzkurdurak ditu; arazo mediku kronikoak edo garapenean atzerapena du; portaera arazoak ditu (oldarkortasuna, gezurrak, eskolako absentismoa...); edo gurasoek beren sexuagatik, osasunagatik... dituzten itxaropenekin asegabeta dago.

- Familia-arrisku faktoreak (De Paul et al, 1988; Crittenden, 1985; Cerezo, 1992):
 - Familia osaerari dagokionez: familia-kohesio eskasa dago; mugatu gabeko rola eta funtzioak daude; guraso bakarreko familia da; seme-alaba kopuru handia dira; guraso nerabeak edo heldugabeak dira edo berreraikitako familia bat da.
 - Familia-interakzioei dagokionez: ezkontideen arteko gatazkak daude; arazo bat konpontzeko indarkeria (fisikoa edo psikologikoa) erabiltzen dute; seme-alaben jokabideak probokazio gisa ikusten dituzte; seme-alaben portaerari eta gaitasunei buruzko itxaropen ez oso errealistak dituzte; gurasoek ezintasun-sentimenduak eta seme-alabekiko gatazkak dituzte; zigorrak maiztasunez erabiltzen dira edo adingabearenganako portaera positiboen maiztasun eta komunikazio eta interakzio urria.
- Faktore soziokulturalak (Gracia eta Musitu, 1993; Garbarino et al., 1986): langabezia, pobrezia edo lan-arazoak izatea; gizarte-isolamendua sufritzea; nortasun- edo kolektibitate- sentimendurik ez duen eta bizi-baldintza txarrak (pobrezia, marjinazioa eta indarkeria) dituen eremu/auzo batean bizitzea; gehiegizko pribatutasun familiarra izatea edo emakumearekiko, haurtzaroarekiko eta aitatasun/amatasunarekiko balio eta jarrera negatiboak izatea.
 - *Gurasoen tratua eta honek adingabearen garapenean duen eragina kontuan hartu beharreko arrisku-egoerak*: alde batetik, gurasoek adingabeak zaintzeko hutsuneak dituztenean, baina ez diotenean kalterik (fisikoa, emozionala, soziala, kognitiboa edo sexuala) eragiten. Beste aldetik, gurasoek bere seme-alabak modu desegokian tratatzen dituztenean eta haurrek, ondorioz, garapenean kalte nabarmena dute edo izango dutenaren seinaleak dituzte.

Haurrek beren burua helduen erasoetatik defendatzeko edo laguntza eskatzeko duten ezintasunaren ondorioz, arazo eta gabezia emozionalak eta sozio-ebolutiboak dituzte beren garapen ebolutiboan, beren nortasuna behar bezala garatzea eragozten dietenak.

Arazo horiek, irakasleek gaizki interpreta ditzaketen jarrera adierazpen, adierazpen fisiko edo adierazpen emozionalak bihurtzen dira; horregatik, oso garrantzitsua da adierazle horiek, zerbait ongi ez dagoenaren alarma-seinale bezala interpretatzea. Hona hemen Nafarroako Gobernuak (2019) definitzen dituen adingabearengan antzeman daitezkeen zenbait seinale:

- *Seinale fisikoak:* gurasoek modu ustelean azaltzen dituzten etengabeko ubeldurak, ebakiak, hezur-hausturak... bezalako lesioak izan daitezke, edo lehen mailako beharrak (osasuna, higiena eta elikadura) ondo asetuak ez dituztenean; hau da, adingabea zikina doa, usain txarrarekin, arropa desegokiarekin, nekea edo etengabeko apatia du, eskolara gosaldu gabe doa, ez du janariren bat hartzen, ez du oinarrizko zaintza medikurik jaso...
- *Jarrera seinaleak:* harreman sozio-familiarrei dagokionez, haurra edo nerabeak etxera joatea saihesten du, guraso edo zaintzailearen beldur da, etxera bakarrik itzultzen da, familiaz hitz egitea saihesten du, zaintzen duen inor ez dagoela dio, gurasoarena egiten du anai-arrebekin... Jarrera eta harremanetan, aldiz, itxuraz arrazoirik gabeko eskola-jokabidearen aldaketa nabarmena du, jokabide oldarkor edota amorru larri eta iraunkorrak ditu, jokabide antisozialak ditu, jarrera hiperzaintzailea du, bere burua zauritu egiten du, suizidio-saiakera izan du eta sintomatologia depresiboa du, arduratsuegia da... Errendimendu akademikoan, berriz, eskolako zereginekiko interes eta motibazio gutxi du, taldeko jardueretan laguntzeari uko egiten dio, justifikaziorik gabeko falta izan ohi du, kontzentratzeko arazoak ditu, materiala ez du, ez du inoiz parte hartzen... Azkenik, sexualitatean, jokabide sexual esplizitua du, bere adinerako desegokiak diren jolas eta ezagutzak ditu, bere adinerako desegokiak diren adierazpen sexualak erabiltzen ditu, portaera sexualak (beste hurrekin, jostailuekin, bere buruarekin) ditu...

Guraso edo zaintzaileei dagokionez, honako adierazleak somatu daitezke: ez dira adingabeaz arduratzen, ez dira eskolako bileretara edo hitzorduetara joaten, haurra jendaurrean mespretxatzen eta gutxiesten dute, semea bere jabetzako zerbait bezala ikusten dute, substantzia toxiko asko hartzen dituzte, azalpen ilogikoak, kontraesankorrak, sinesgaitzak ematen dituzte edo ez dute azalpenik ematen...

Babesgabetasun-egoera baten jakinarazpenari dagokionez, Nafarroako Gobernuak (2019) dio abisua emateko, egoeraren susmoa egotearekin nahikoa dela. Harrera-prozesuan adingabearen, bizikidetzaguneko pertsonen eta jakinarazlearen identifikazioa, egoerari buruzko informazioa eta gurasoek edo legezko tutoreek jakinarazpenari buruz duten informazioa agertu behar dira. Lehenik eta behin, Gizarte Zerbitzuek artatu dezaketen egoera den zehaztu behar da; hala izan ezker, babesgabetasun kasua den edo ez aztertu behar da. Biktima, 18 urtetik beherakoa izateaz gain, adingabearen eskubideen urraketa erreal edo potentziala badago, eta, horren ondorioz, haren oinarrizko premiak (fisikoak, kognitiboak, emozionalak edo sozialak) asetuta ez baditu eta gurasoek edo legezko tutoreek oinarrizko beharrak, beren baliabideekin ezin dituztela ase adierazten duten zantzuak badaude, babesgabetasun-kasua da. Hortaz, haurra edo nerabearen osotasun fisiko edo psikikoa arriskuan badago, gurasoen portaeren larritasuna (intentsitatea, maiztasuna eta iraupena) oso handia bada eta adingabea etxean babestuta dagoelaren ziurtasunik ez badago, berehala esku hartu behar da.

Beraz, detekzioa, hurrekiko tratu txarren edo abandonuaren aurrean erantzuna emateko funtsezko fasea da. Hala ere, badira fase hori zailtzen duten eta Sara Macíasek (2017) azaltzen dituen zenbait oztopo (Albéniz et al., 2010; De Paúl eta Arruabarrena, 2001; Díaz-Aguado, 2001; Gómez Pérez, 2002; González eta Guinart, 2011):

- *Babesgabetasun-egoeren eta prestakuntzarik ezaren berri ez izatea*: ikastetxeko langileek etengabe prestakuntza jasotzeaz gain, irakasleek oinarri teoriko bat jasotzeko interesa izan behar dute, eta motibatuta egon behar dira sortzen zaizkien galderei erantzunak bilatzeko.
- Askotan, detekzioa, begi hutsez ikusteko zailagoak diren eta tratu txarren edo abandonu fisikoaren ondorio diren adierazleak baino *gutxiago ikusten diren adierazleetan* oinarrituta egin behar da.
- *Babesgabetasun-kasu bat den edo ez definitzea zaila da*: batzuetan, onargarriak ez diren haurren tratu txarren kausak, kultura edo tradizio hutsetan ez dute esanahi bera, eta, horren ondorioz, gurasoei, egoeraren larritasuna ulertzea kostatzen zaie.

- *Zuzeneko behaketa ez da existitzen* babesgabetasun egoera, intimitatean eta lekukorik gabe gertatzen ohi baita.

Jakinarazpenari dagokionez, hauek dira Macíasek (2017) azaltzen dituen eta aurki daitezkeen oztopoak (Albéniz et al., 2010; Arruabarrena eta De Paúl, 1988; De Paúl eta Arruabarrena, 2001; Del Valle eta Bravo, 2002; Díaz-Aguado, 2001; Gómez Pérez, 2002; González eta Guinart, 2011):

- *Hautemandako kasuetarako konponbide eraginkor baten aurrean sinesgabetasuna*: alde batetik, baliteke aurreko egoeretan erantzuna zuzena ez izatea eta, ondorioz, jakinarazpen berriak egiteko orduan zailtasunak izatea. Bestalde, baliteke gainerako eragileen erantzuna eraginkorra izan arren, egoera aldatzeko jarduerak aurrera ez eramatea.
- *Beldurra egiazkoa edo egiaztatuta izan ez daitezkeen susmo baten aurrean*: honek komunikazioan segurtasun eza sortzen du, askok, gaizki egingo dutela edo zantzuak nahikoak ez direla uste baitute.
- *Prestakuntzarik eza eta jarraitu beharreko urratsei buruzko ezjakintasuna*.
- *Lankideekin edo adingabearen senideekin arazoak sor daitezkeen beldurra*: kritikaturtuta izateari edo salatuek lege-ekintzen berri izatean, erasotua izateari beldur.
- *Babesgabetasun esparruarekin zerikusia duten garrantzia txikiagoko edo ikusgaiak diren frogarik eza*: kasu batzuei beste batzuei baino garrantzi handiagoa ematen zaie, nahiz eta kezkarria suertatzen den edozein aldaketa edo marka jakinarazi behar den.

1.10.2. Hezkuntza Sistemaren parte-hartzea esku-hartzean

Haurrak babestea administrazio publiko guztiek duten ardura dela defendatzen dute Jesús García eta Venancio Martínezek (2012). Izan ere, adingabeenganako tratu txarrek haien eskubideak urratzen dituzte, eta eragin negatiboa dute haien garapenean eta gizartean egokitzeko gaitasunean. Beraz, hori gerta ez dadin, tratu onaren kultura baten bidez, maila eta esparru guztietan lan egitea beharrezkoa da, behar den zaintza, babesa eta hezkuntza jaso dezaten.

Hau dela eta, ikastetxea, tratu txar egoerak antzemateko behatoki pribilegiatua da, eta tratu onaren eremuan oinarrituz, pertsonen arteko harremanak eta familien eta profesionalen arteko lankidetzak sustatzeko leku ezin hobea. Horregatik, eskola-integrazio egokia, egoera sozio-familiar txarrean dagoen edozein adingabearentzako babes-faktore nagusietako bat izan daiteke. Beraz, esku-hartzea eraginkorra izateko, hezkuntza-profesionalek egoera soziofamiliar ahulean dagoen adingabearen ongizatearekiko kezka adierazteko modu egokia aurkitzeko aukera izan behar dute, eta hori sareko lanarekin lortzen da.

Lehen esan bezala, tratu ona, norberaren eta besteen zentzumenen aurkikuntza eta balorazioa, jendearekiko harremana, norberaren bizitza-proiektuen eraikuntza eta bizikidetzak baketsua sustatzen dituzten harremanak dira. Hortaz, eskola-eremuan ematen den tratu ona honako printzipioetan oinarritzen dela diote Jesús García eta Venancio Martínezek (2012):

- *Onarpena*: ikasle bakoitzak den bezala onartuta izateko beharra eta espazio fisiko, intelektual eta afektibo bat okupatzeko eskubidea du. Horrela, aniztasunarekiko errespetua sustatuz, auto irudia eta autoestimua indartuz eta elkarbizitzarako giro egokia sortuz.
- *Empatia*: beste pertsonaren tokian jartzeko, nola sentitzen den hautemateko eta haren sentimenduak ulertzeko gaitasuna da. Zenbat eta irekiagoak egon norberaren sentimenduak ezagutu eta adieraztera, orduan eta errazago onartzen eta aitortzen dira besteenak. Beraz, ezinbestekoa da umeei haien sentimenduei izena jartzera eta adieraztera animatzea eta laguntzea.
- *Kolaborazioa eta kooperazioa*: taldean lan egiteko, helburu komunak lortzeko lankidetzan aritzeko, afektuzko eta adiskidetasuneko loturak sortzeko eta bizikidetzak baketsua izateko gaitasuna.
- *Komunikazio eraginkorra*: modu eraginkorrean komunikatzeko, estilo autoritario eta zurrinak edo eredu oldarkor edo bortitzak ez dira erabili behar; baizik eta, adierazpen askatasuna, asertibitatea, besteen iritziekiko errespetua, entzuteko gaitasuna...
- *Negoiazioa eta bitartekaritza*: ezer inposatu gabe edo besteak diona besterik gabe onartu gabe, desadostasun bat dagoenean akordio batera iristeko

gaitasuna da. Horretarako, desberdintasunetikiko tolerantzia eta errespetua oinarri izanik, desadostasunetan norberaren arrazoiak argudiatuz.

Aurrekoa kontutan hartuta eta ikasleen artean tratu ona sustatzeko helburuarekin, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan, ikasleei zuzenduriko programa desberdinak aurkitu daitezke; horien artean, Nafarroako Gobernuak sortutako “*SKOLAE. Berdinen Bidean*” (2019) programa aurkitzen da. Programa honen helburua, hezkuntzaren bidez, adingabeek, berdintasunean hazten eta harremanak izaten ikastea, indarkeriarik eta eredu eta mezu sexistarik gabe eta eskura dituzten bizi-aukera guztiekin haztea da. Horretarako, alde batetik, berdintasuna sustatzen ez duten jarrerak aztertuz, zuzenduz eta konpentsatuz, eta beste aldetik, berdintasuna bultzatzeko jarrerak eta portaerak erakutsiz eta identifikatuz.

Horregatik, desberdintasunak antzemateko, harreman-eredu berriak bilatzeko, nork bere burua zaintzen, independenteak izaten, proiektuen buru izaten, hobekuntza sozialean parte hartzen eta erabakiak hartzen ikasteko, errespetuan eta erantzukizunean oinarritutako bizitza afektibo eta sexual positiboa sustatzeko, eta tratu onean oinarritutako harremanak izateko, SKOLAE programak lau ardatz proposatzen ditu:

- *1. ardatza. Kritika eta erantzukizuna desberdintasunaren aurrean:* genero-desberdintasunak identifikatu eta aztertu ondoren, hauei aurre egitean eta aldatzean datza.
- *2. ardatza. Autonomia eta independentzia pertsonala:* berdintasuneko bizitza proiektua autonomiaren eta independentziaren oinarria izan dadin, bakoitzak, zaintzaren eta lan munduan parte hartzearen ardura hartu behar du. Horretarako, haurrei transmitituz, lanak ez daudela generoaren arabera bereiztuak.
- *3. ardatza. Lidergoa, ahalduntzea eta parte-hartze soziala:* ahalduntze pertsonalaren, autoestimua eta erabakiak hartzearen bidez, bakoitzak erabakiak hartzeko dituen gaitasunak ezagutzeko eta helburu komunak lortzeko jarduerak bultzatzean datza. Beraz, eskola gune ezin hobea da lidergo-gaitasunak eta -trebetasunak (lanekoa eta soziala) garatzeko, esparru publikoan aldaketak sustatzeko eta besteak onartzen eta errespetatzen ikasteko.

- *4. ardatza. Sexualitatea eta tratu ona:* azken ardatz honen helburua, bakoitzak, harreman afektiboak, sexualak eta elkarbizitzakoak adierazteko edo ezartzeko dituen gaitasunak ezagutzea da. Horrela, adingabeen artean, hezkuntza afektibo-sexual argia, osasungarria, berdintasunekoa eta askotarikoa sustatuz.

Lehen esan bezala, tratu onaren garrantzia azpimarratzeko helburuarekin, konfiantza, segurtasuna eta sentimenduen eta ideien adierazpena oinarri hartuta, inguruko norbaitekiko lotura afektiboak ezartzea; errespetuan eta hazkunde pertsonalean oinarrituta, berdinen arteko harremanak sustatzea; tratu txarrak identifikatzeko, abusuzko portaerak mugatzeko, eraso sexista edo sexual baten aurrean erantzuteko eta ideiak, sentimenduak, afektuak eta desioak adierazteko tresnak eta trebetasunak ematea; besteak ulertzen, errespetatzen eta onartzen ikastea; eta sentimendu- eta sexu-bizipen positiboen eta arduratsuen garrantzia azpimarratzea lortu nahi du Nafarroako Gobernuak (2019) programa honen bidez.

Gurasoen betebeharrei zuzenduriko dokumentuen artean, hau da, eskolek, beharrezkoa duten familiekin, guraso bezala dituzten ardurak edo betebeharrak lantzeko edota sustatzeko, Oviedoko Unibertsitateko Raquel-Amaya Martínez González katedradunak argitaratutako *“Programa-guía para el desarrollo de competencias emocionales, educativas y parentales”* (2009) gida erabiltzeko aukera dute. Bertan, familiei, bakoitzaren egoeraren arabera, hezkuntza aholkularitza, erantzunak eta laguntza eskaintzeko hainbat ideia azaltzen dira. Hau da, alde batetik, gurasoen funtsezko eginkizuna, guraso-rolaren garapen egokia eta positiboa, entzutea, beharrak eta eskaerak aztertzea eta familiei laguntzea aldarrikatzen du, eta bestetik, familiarekin eta adingabearekin lan egiten duten profesionalen funtsezko rola eta familiarekin nahiz beste profesional batzuekin lankidetzan aritzea.

Hortaz, familietako kideen eta familia-taldearen ahalmen indibiduala garatzeko, familia-arazoak ekiditeko eta zailtasunak gainditzen laguntzeko helburuarekin, *Familia-Bizitzarako Hezkuntza-orientazioa eta Esku-hartzea* (Brock, Oertwein eta Coufal, 1993; Martínez González, 1999; Otero, 1989; Thomas eta Arcus, 1992) sustatzea ezinbestekoa da. Hau da, nork bere burua ulertzen ikastea; familia barruan, giza garapenaren eta portaeren prozesuak erraztea; bikote- eta familia-bizitzako patroik eta prozesuak

ezagutzea; bitzta familiarerako trebetasunak eskuratzea; pertsonen familia-rolak betetzeko ahalmenak eta familian, kohesio- eta erresilientzia-trebetasunak garatzea.

Hortaz, lehen aipatutako Raquel-Amaya Martínez Gonzálezen (2009) gidan, honako helburuak jorratzen dira: gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak ulertzeko, giza portaerak ulertzea; adingabearen emozioetan eta sentimenduetan eragina duten faktoreak ezagutzea; garapen pertsonala sustatzea; familia-komunikazioa hobetzea; entzuteko, gatazkak positiboki konpontzeko, negoziatzeko eta erabakiak hartzeko trebetasunak garatzea, eta portaera- eta diziplina-arazoak (droga-kontsumoa, nerabeen haurdunaldiak, etab.) saihesten eta konpontzen ikastea. Helburu hauek lortzeko, programak, 6 modulu edo dimentsio desberdin ditu:

1. Eboluzio-etapa bakoitzaren eboluzio-ezaugarriei buruzko informazioa.
2. Trebetasun kognitiboen, erlaxatzeko eta autorregulazio emozionalekoen lanketa.
3. Autoestimua eta asertibitatea guraso-funtzioa garatzean.
4. Komunikazio asertiboa: entzuteko eta hitzez eta keinuz adierazteko ohiturak eta trebetasunak.
5. Arazoak konpontzeko eta negoziatzeko estrategiak.
6. Seme-alaben portaeraren autorregulazioa sustatzeko diziplina: mugak, arauak eta ondorioak jartzea.

Eduki-dimentsio hauek garatzeko, Daniel Golemanek (2005) definitu zituen balioak eta gaitasunak eskuratzeko oinarrizko eta funtsezko estrategien bitartez egiten da. Estrategia horiei esker, gurasoek, seme-alaben eboluzio-etaparen arabera, bai familiarentzat, bai gizartearentzat egokiak diren guraso-ekintza jorratzeko aukera dute (Martínez González, 2009: 16-29).

2 Taula. Goleman-en oinarrizko eta funtsezko zeharkako estrategiak

Edukiaren dimentsioak	Estrategiak	Balioak eta kompetentziak
Seme-alaben garapen- etapa: adinaren arabera umeak nolakoak diren (norberaren kontzientzia eta gizarte-kontzientzia)	Itxaropenak doitzea	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Autokontzientzia emozionala ▪ Enpatia ▪ Elkarrekiko errespetua ▪ Kooperazioa ▪ Ardura
Arretaren, errespetuaren, afektuaren eta aintzatespenaren beharra: nola ulertu haurren portaera (norberaren kontzientzia eta kontzientzia soziala)	Jokabide kooperatiboa, ez gatazkatsua	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Enpatia ▪ Norberaren balorazio egokia ▪ Elkarrekiko errespetua ▪ Kooperazioa ▪ Ardura ▪ Frustrazioarekiko tolerantzia
	Jokabide ez kooperatiboa, gatazkatsua (espero dena ez egitea)	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Norberaren balorazio egokia ▪ Enpatia ▪ Erlaxazioa ▪ Frustrazioarekiko tolerantzia ▪ Autokudeaketa emozionala
Autoestimua eta asertibitatea: nola sentitu ondo eta seguru guraso gisa,		<ul style="list-style-type: none"> ▪ Norberaren balorazio egokia

<p>eta nola lortu haurrak ondo sentitzea eta konfiantza izatea helduengan eta beren buruarengan (autokontzientzia emozionala, autorregulazioa, gizarte-kontzientzia eta harremanen kudeaketa)</p>	<p>Hizkuntza positiboa eta motibatzailea (hitzezkoa eta keinuzkoa)</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Norberarengan konfiantza eta segurtasuna. ▪ Asertibitatea ▪ Frustrazioarekiko tolerantzia ▪ Moldagarritasuna ▪ Enpatia ▪ Motibazioa ▪ Iniziatiba
<p>Komunikazio asertiboa: nola entzun eta besteren lekuan jarri elkarri hobeto ulertzeko (kontzientzia soziala) eta modu positiboan nola adierazi (autorregulazioa eta harremanen kudeaketa)</p>	<p>Entzute aktiboa eta mezuak</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Norberaren balorazio egokia ▪ Frustrazioarekiko tolerantzia ▪ Enpatia ▪ Elkarrekiko errespetua ▪ Komunikazio asertiboa ▪ Influentzia soziala ▪ Lidergoa ▪ Binkuluak ezarri
<p>Arazoen ebazpena: hurrei beren arazoak konpon ditzaten nola lagundu eta akordioak haiekin nola lortu (harremanen kudeaketa)</p>	<p>Alternatibak aztertzea eta negoziazioa</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Arazoen ebazpena ▪ Erabakiak hartzea ▪ Ondorioak onartzea ▪ Ardura ▪ Kolaborazioan talde-lana

Diziplina (mugak, arauak eta ondorioak): haurren portaera nola hobetu eta haien autorregulazioa nola sustatu (harremanen kudeaketa eta autorregulazioa)	Ondorio koherenteak, iraunkortasuna eta sariak eta zigorrak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ondorioak onartzea ▪ Ardura ▪ Jokaeraren ▪ autorregulazioa
---	---	---

Programa honetan hiru ebaluazio desberdin egiten dira: alde batetik, hasierako ebaluazioa, parte-hartzaileen itzaropenak ezagutzeko (gurasoen jarrera eta usteak guraso-rolaren inguruan, dituzten beharrak, etab.). Beste aldetik, prozesuaren ebaluazioa, programaren elementuak saioen dinamiketara eta helburuetara zenbateraino egokitzen diren baloratzeko, eta gurasoen trebetasunak eta gaitasunak ezagutu eta praktikan jartzeko (saioetan gurasoek egiten dituzten iruzkinak, saio bakoitzeko parte-hartzaile kopuruak, saio kopuruak, etab.). Bukatzeko, azken ebaluazioa, gurasoen rola ondo betetzeko trebetasunen eta gaitasunen garapena sustatzeko eta parte-hartzaileen itzaropenak zenbateraino bete diren ezagutzeko (ahoz eta idatziz programaren balorazioa egin, programa errepikatuzko eskaerak, ...) (Martínez González, 2009: 16-29).

Azkenik, familia eta hurrekin jokabide arduratsuak lantzeko helburuarekin eta adingabeak, tratu oneko, konfiantzazko eta errespetuzko ingurune batean hazi daitezten, eskolek, M.^a Asunción Fernández Díaz, José Luis Idoate Iribarren, M.^a Carmen Izal Mariñoso eta Irene Labarta Calvok idatzitako eta Nafarroako Gobernuak argitaratutako *“Desarrollo de conductas responsables de 3 a 12 años”* (2007) bezalako dokumentuak erabili ditzakete. Helburua, gurasoek eta seme-alabek jokabide arduratsuak hartzearen inguruan aztertu eta hausnartzea da. Heztea, familian hasten den eta eskolan eta beste gizarte-giro batzuetan jarraitzen duen prozesu luzea da, eta independentea izaten, bere kabuz baliatzen, erabakiak hartzen jakiten, bere ekintzen erantzule izaten, etab. laguntzean datza.

Beraz, haurrek beren ekintzen, pentsamenduen edo erabakien ondorioak beren gain hartzen ikasi behar dute, eta hori heldua imitatuz eta gizartearen onarpenarekin eskuratzen dute, modu honetan, beren autoestimua indartuz. Arduran eta etorkizuneko

heldu arduratsuak hezteko, ordea, guraso eta hezitzaileen eguneroko ahalegina ezinbestekoa da.

Aurrekoa kontuan hartuta, umeei transmititu behar zaie ez diotela utzi behar beste bati beraiak egin dezakeen gauzak egiten (garbiketa pertsonala, bere gauzak ordenatzea, etab.); zerbait egiten dutenean, arrazoituz egin dezatela, egitearen zergatia pentsatuz edo aukeratuz; onar ditzatela beren ekintzen ondorioak, oker badaude ere; etxean lagundu behar dutela eta arauak eta ordutegiak errespetatu; lankideak eta ingurunea errespetuz tratatu behar dituztela; zerbait azaltzen ari zaienean arreta jarri behar dutela...

Gurasoei dagokienez, argi izan behar dute bizitzako lehen urteetan ardurak jolasa izan behar direla, eta pixkanaka betebeharrak bihurtzea lortuko dela. Lehen esan bezala, ikaskuntza hau imitazioaren bidez ematen da, eta, itxaropen argiak eta dedikatutako denbora behar da. Gurasoek, haurrari eskatuko zaizkion erantzukizun errealistetan ados jarritz, semea nahi duten alderdietan hezteko lortuko dutelakoan seguru egon behar dute. Hortaz, pazientzia eta tolerantzia ezinbesteko alderdiak dira umea arduratsu hazteko. Haurrari, konfiantza erakutsi, ondo egiteko gai dela sentiarazi eta segurtasuna transmititu behar zaio. Gainera, argi eta hitz gutxirekin azaldu behar zaio egin beharrekoa eta ziurtatu behar da ongi ulertu duela.

Beraz, ez dute beren seme-alabek bakarrik egin dezaketen hori egin behar, baizik eta beren garapenerako, aukeratarako eta mailarako egokiak diren gauzak eta ardurak eskatu behar dizkiote. Gainera, noizean behin, bi aukeraren artean hautatzeko aukera eskaini behar diote, aukeratzeko ardura eta huts egiteko arriskua barnera ditzan. Azkenik, ez diote lana bertan behera uzten utzi behar, horrek jarraitutasunik eza errazten duelako eta jokabide apal eta oldarkorrak eragin ditzakelako (Fernández; Idoate; Izal eta Labarta, 2007).

Egindakoa baloratu behar da, eta autonomia pertsonalarekiko edo erantzukizun-ohiturekiko afektu-adierazpenekin adierazi, ikasitakoa finkatzen laguntzen baitie eta berriro saiatzera bultzatzen baititu. Beraz, aurrerapausoak eta gurasoen adostasuna adierazten duten jokabideak indartu behar dira. Azkenik, bere lana zenbateraino bete duen ikusi behar da, eta amaitu ez badu, ondorioak onartu behar ditu.

Erabakiak hartzen ikasteari dagokionez, heldutasun eta esperientzia maila kontuan hartuta, aukeratzen eta erabakitzen jakitean datza. Horregatik, oso garrantzitsua da txikitatik aukerak ematea, okertze sentsazioarekin esperimintatu dezaten. Izan ere, erabakiak hartzen ikasteak, haien eta besteen beharrak asetzen laguntzen die. Gainera, erabakiak justifikatzeko eskatu behar zaie, jokabide apetatsuak edo oldarkorrak saihesteko. Bukatzeko, mugak ezarri behar dira adingabeak bizitzaren esparru desberdinetan integratzeko eta mendekotasun, heldutasun sozial eta segurtasun gabeko egoerak saihesteko; horretarako, haien betebeharrak eta eskubideak eta, heldutasuna eta ardura progresiboa ezagutu behar dute.

Askotan entzuten da gurasoen artean "nire semea edo alaba zoriontsua izatea nahi dut" bezalako esaldiak, eta uste dute hori zailtasunak saihestuz, beren nahiei aurrea hartuz, nahi dutena emanaz edo edozein erresistentzia edo kontrakotasunen aurrean amore emanaz lortzen dela. Baina, hori, ardura barneratzea zailduko duen oztopoa baino ez da. Haurrak zailtasunak edo ezjakintasuna izatea saihestuz eta bere adinagatik egin beharko lituzkeen gauzak eginez, ahulak eta dudatsuak bihurtzen dira eta bere hazkunde pertsonaleko prozesu naturala geldiarazten da.

Horregatik, haurrek jakin behar dute zer egin dezaketen eta zer ez, baita adostutakoa ez betetzeak dituen ondorioak ere. Era berean, gurasoek jarrera permisiboak saihestu eta ahalegin- eta erantzukizun-gaitasunean hezi behar dituzte, betiere agindu autoritarioak saihestuz. Arauak hasieratik eman behar dira, eta ez unean uneko urduritasunagatik edo adingabea menderatzeko beharragatik, eta oso garrantzitsua da jokabide egokiak indartzea eta maiz goraiatzea. Beraz, honako jarrera hauek saihestu behar dira (Fernández; Idoate; Izal eta Labarta, 2007):

- Haurrak barregarri utziko duten alderaketak.
- Antsietatea, beldurra edo segurtasunik eza sortzen duten iruzkinak, eta deskalifikazio globalak.
- Oihuak, modu txarrak eta mehatxuak.
- Haurra, aginduak soilik jasotzen dituen pertsona pasibo bezala ikustea.
- Gehiegizko babesa.
- Seme-alaben aurrean aitaren eta amaren arteko desadostasuna adieraztea.

Hiru hauek bezalako beste dokumentu batzuekin ere, eskolek, familiekin eta adingabeekin alderdi, jarrera, mezu, gako, etab.-en bidez, tratu onean oinarritutako balio eta estrategiak lantzeko, konfiantza, errespetua, ardura eta berdintasuna sustatzeko, babesgabetasun-egoerak saihesteko, hauei aurre egiteko edota laguntza eskatzeko, baita umeei, sentitzen dutena adierazten laguntzeko aukera dute. Izan ere, tratu ona, batez ere, etxean ikasten da; beraz, gurasoei, behar dutenean laguntza eskaini behar zaie beren seme-alaben aurrean modu egokian jokatzeko eta hauen beharrei erantzuna ematen ikas dezaten.

2. MARKO PRAKTIKOA

2.1. Justifikazioa

Nafarroako Gobernuak Osasun Sailak, Osasun Publikoaren Institutuak zehazki, (1996) dioen bezala, amatasuna, aitatasuna, familia, seme-alabekiko harremanak, etab. ulertzeko modu desberdinak daude. Batzuek amatasuna edo aitatasuna giza joera gisa ulertzen dute, beste batzuek hautu pertsonal bezala, beste batzuek rol sozial gisa, etab. Hala ere, gizarte guztietan, gizartearen arabera aldatzen diren eta ama edo aita izateko orduan nagusi diren ereduak daude, eta horrek, zerbait pertsonala izateaz gain, garrantzi sozial handiko gertaerak izatea eragiten du.

Hala ere, gurasoekin lan egin baino lehen, eskolaren ardura, familia motak (familia zabala edo hedatuta, familia nuklearra, guraso bananduen familia, familia berreraikia, guraso bakarreko familia, adopzioko familia, seme-alabarik gabeko familia, familia homo-parentalak, adindunez osaturiko familia, familia poligamoa, familia poliandrikoa eta larrialdiko, aldi baterako edo iraunkorra den harrerako familia) haurrei aurkeztu eta landu behar dituzte. Izan ere, haurrek ezagutu behar dute gaur egun dauden eta oso aldakorrek diren familien aniztasuna, hau da, familia bat ez duela zergatik beti berdina mantendu behar.

Izan ere, Espainiako Análisi Transakzionaleko Elkarteak (2009) defendatzen duen bezala, zazpi familia mota desberdinekin egindako ikerketa batek ondorioztatu du familia motak ez duela eraginik haur baten bost beharrak (biologikoak, kognitiboak, afektiboak, sozialak eta hezkuntzakoak) asetzeko orduan. Are gehiago, premia horiek hobeto edo

okerrago asetuta egotea, familiako pertsonen ezaugarrien eta familiako balio, printzipio eta arauen arabera da.

Gaur egun, Nafarroako Gobernuak (2005) defendatzen duen bezala, familia, pertsona bezala garatzen laguntzen duen pertsona-komunitate hartzen da; bertan, seme-alabak gizarte-bizitzan integratzeko eta behar desberdinak dituzten pertsonekin, elkarrekiko errespetuan eta askatasunean oinarrituz, bizi ahal izateko hezkuntza planteatzen da. Horregatik, gurasoek, beren rola argi izatea eta seme-alaben eboluzio etaparen ezaugarriak ezagutzea ezinbestekoa da.

Bestalde, erabiltzen den hezkuntza estiloak ere eragin handia du. Horregatik, hezkuntza-estilo egokitzat jotzen da gurasoak kongruenteak direnean, seme-alabak diren bezala onartzen dituztenean, asertiboak direnean, haien garapenean laguntzeko nolabaiteko "autoritatea" dutenean eta adingabearen autonomia, autoestimua eta balio eta trebetasun pertsonal eta sozialak garatzen dituztenean. Hau da, harremanen oinarria, empatia, entzutea eta komunikazioa izatea; gatazkei, interrelazioaren eta negoziazioaren bidez aurre egin ahal izateko.

Beraz, garapen pertsonalaren bidez, hurrek, beren burua zaintzeko eta gaitasun pertsonal eta sozial handiagoa izateko oinarrizko baliabideak eta trebetasunak gara ditzakete. Horrek eragina du bai etorkizunean gaixotasun eta jokabide arriskutsuak, nutrizio-alterazioak, droga-mendekotasunak, ... saihesteko orduan, bai bizitzari eta bizi-egoerei aurre egiteko orduan.

Gurasoen eta seme-alaben arteko harremanari dagokionez, gurasoekin duten harremanaren arabera, hurrek, beren ongizate psikologikorako segurtasun emozionala eskuratuko dute. Gainera, gurasoak imitatuz, bizitza interpretatzen eta ulertzen, eta jokatzeko ikasten dute. Bestalde, gurasoek eragin handia dute seme-alaben harreman sozialetan. Hala ere, eskolak, berdinek, gizarte-komunikabideek, beste helduek, etab. ere eragina dute adingabe baten hezkuntzan.

Hortaz, aita edo ama izatea erronka handi bat da; izan ere, gizartean aurki daitezkeen eta seme-alabak bertan integratzean dauden zailtasunak gain, gaineratu behar da gurasoei egotzen zaiela beren seme-alabak zer diren edo zer izango direnaren ardura edo errua, baina ez dutela prestakuntzarik edo laguntzarik jasotzen beren hezkuntza-

zereginak garatzeko. Horregatik, oso garrantzitsua da gurasoak, hurrengo puntuan azalduko diren, beren guraso-eskumenez jabetzea eta behar bezala erabiltzea (Nafarroako Gobernuak, 2005).

2.2. Guraso-eskumenak

Guraso-eskumenak kontzeptua, Cristina Sallés eta Sandra Gerren (2011) arabera, seme-alabak zaintzeko eta haien beharrei erantzuteko gurasoek duten gaitasunari egiten dio erreferentzia. Masten eta Curtisek (2000), aldiz, honela definitzen dute gaitasuna: pertsonak, bizitzaren eskaeretara egokitutako erantzun malguak (afektua, kognizioa, komunikazioa eta portaera) sortzeko eta koordinatzeko eta dauden aukerak probesteko estrategiak sortzeko duten gaitasuna da. Rodrigo, Máiquez, Martín eta Byrnek (2008) berriz, guraso-eskumenak, gurasoek, seme-alaben eboluzio- eta hezkuntza-beharrak eta gizartean onargarriak diren estandarrak kontuan hartuta, guraso izatearen funtzioari malgutasunez eta modu egokian aurre egiteko dituzten gaitasunak direla diote. Horretarako, familian eragina duten sistemak (hezkuntza-, osasun-, gizarte-,... sistemak) gaitasun horiek garatzeko eskaintzen dituzten aukerez eta laguntzez baliatuta.

Barudyk (2005) dioen bezala, ingurune soziokultural egoki batean, gizakiak, seme-alabak zaintzeko ahalmen biologikoa du, haurra modu osasuntsu eta egoki batean garatzea eraginez. Izan ere, ikerketa zientifiko desberdinek baieztatu dute haurrek garapen fisiko eta mental egokia lortzeko, onarpen-, errespetu-, afektibitate- eta estimulazio-giro batean hazi eta hezi behar direla. Beraz, gurasoek, bizitzako etapa bakoitzari erantzunak egokituz, seme-alaben beharrak asetzeaz gain, beren beharrak ere asetu behar dituzte (Sallés eta Ger, 2011).

Hau dela eta, familiaren funtzioak, Palacios eta Rodrigoren (2004) ustez, bi multzotan sailkatu daitezke. Alde batetik, gurasoen garapenean zentratutako funtzioak:


- Familia, ongizate psikologikoko maila ona duten pertsona heldu gisa hazteko espazio gisa.
- Familia, erronkei aurre egiten eta erantzukizunak eta konpromezuak hartzen ikasteko prestaketa-espazio gisa.
- Familia belaunaldien arteko topagune gisa.

- Familia, bizi-trantsizioetarako gizarte-laguntzako sare gisa; lehen bikotea nola aurkitu, lana nola bilatu, gizarte-harreman berriak...

Beste aldetik, seme-alaben garapenean zentratutako funtzioak:

- *Gurasoen babes-funtzioa*: seme-alaben garapen, hazkunde eta sozializazio zuzena errespetatzea eta sustatzea.
- *Guraso-funtzio afektiboa*: adingabearen garapen psikologikoa eta afektiboa bermatuko duen ingurunea eskaintzea.
- *Estimulazioaren guraso-funtzioa*: seme-alaben garapen fisiko eta sozial egokia bermatzea.
- *Guraso-funtzio hezitzailea*: haurren hezkuntza-garapena bermatzeko erabakiak hartzea.

Barudyk eta Dantagnanek (2010), aldiz, guraso-eskumenak gurasotasun sozialari egiten diotela erreferentzia uste dute; modu honetan, gurasotasun biologikoa den haur bati bizia emateko edo ugaltzeko gaitasunetik desberdinduz. Horregatik, defendatzen dute gizarte-gurasotasuna gurasoen edo ordezko guraso-zaintzaileen funtsezko zeregina bada ere, komunitatearen laguntza ezinbestekoa dela hori bete ahal izateko. 3. irudian ikusi daitekeen bezala, bost bloketan banatzen dituzte guraso biologikoek, adoptatzaileek, zaintzaileek, hezitzaileek edo legezko tutoreek eskumeneko gurasotasuna gauzatzeko bete behar dituzten beharrak:



3 Irudia. Gurasotasun soziala gauzatzean bete beharreko beharrak

(Barudy eta Dantagnanek egokitua, 2010)


Beraz, umeen beharrak asetzeko helduek egin beharrekoa, honako hau da:

- *Elikadura-, afektu-, zaintza- eta estimulazio-premiak asetzea:* haurren hazkundera ziurtatzeko eta desnutrizioa prebenitzeko, elikadura ona emateaz gain, lotura seguru bat eraikitzeke eta familia- eta gizarte-mundua espazio seguru gisa ikus dezaten, esperientzia sensorial, emozional eta afektiboak eskaini behar dizkiete.
- *Hezkuntza-premiak ziurtatzea eta asetzea:* adingabeak duen mundu sozialera eta sare sozialera sartzeko modua, jaiotzetik jaso duen hezkuntza motak zehazten du. Horregatik, gurasotasun gaitu baten emaitza da pertsonen arteko errespetua ahalbidetzen duten arauak, legeak eta tabuak integratzea. Haur baten hezkuntza harreman-prozesuen arabera da; bereziki guraso eta seme-alabaren arteko lotura emozionalaren arabera. Hortaz, Cyrulnik (2001), Barudyk (2005) eta Dantagnanek (2005) defendatzen dute haur bat gainontzeko pertsonak gizabidearekin tratatuko dituela, maitatuta eta ongi tratatua sentitzen denean. Beraz, gurasotasunaren hezkuntza-helburua ziurtatzeko, hezkuntza-ereduek oinarrizko 4 eduki hauek izan behar dituzte:
 - Afektua: hezkuntza eredu nutritiboa eta barneratzailea ziurtatzeko.
 - Komunikazioa: elkar entzunezko, errespetuzko eta enpatiazko giroa izan behar da.
 - Garapen-prozesuetan eta heldutasunaren eskakizunetan laguntzea: aintzatespenaren eta esker onaren bidez, seme-alabak animatu eta lagundu behar dituzte, eta haien lorpenak sustatzeko erronkak planteatu behar dizkiete.
 - Kontrola: adingabeek helduak behar dituzte beren emozioak, bulkadak eta desioak kontrolatzen ikasteko (adimen emozionala eta harremanekoa), gertaeren ondorioak eta akatsak ezagutzeko, egindakoaz hausnartzeko eta abar.
- *Beharrian sozializatzaileei erantzutea:* haien nortasuna eraikitzen laguntzean datza; gurasoek, seme-alabei buruz sentitzen, pentsatzen eta adierazten duten horrek eragin handia baitu hurrek beren burua ulertzen duten moduan.

Horregatik, gurasoek autokontzeptuaren eta autoestimua irudi positiboa transmititzen diete. Autokontzeptu hau hiru maila desberdinetan ageri da:

- Maila kognitiboa: hauraren izateko eta jokatzeko modua gidatzen duten ezaugarriak dira.
 - Maila afektiboa: norberaren deskribapenarekin batera doazen afektuak, emozioak eta ebaluazioak dira.
 - Jokabide-maila: jokatzeko modua da eta haurrak dituen pertzepzioei eragiten die.
- *Babes-beharrak ziurtatzea*: umeak zuzenean zauritu ditzaketen edo haien heltze, hazkunde eta garapen prozesua kaltetu dezaketen kanpoko, familia eta gizarte testuinguruetatik eta beren hazkunde eta garapenetik eratorritako arriskuetatik babestean datza.
 - *Erresilientzia sustatzea*: bizitzako erronkei (esperientzia traumatikoei ere) garapen prozesu osasuntsu bat mantenduz, aurre egitean datza erresilientzia. Beraz, guraso-funtzio gaituek, haurrak aktibo, sortzaile eta esperimantatzaile izatera laguntzen dituzte. Izan ere, beren gaitasunetatik abiatuta, errealitatea ikasteko, esperimantatzeko eta ebaluatzeko testuingurua eskaintzen zaie.

Hau dela eta, Jorge Barudyren gurasotasun-sozial eredu hau, 4. irudian ikusi daitekeen bezala, bi osagai nagusik osatzen dute: alde batetik, funtsezko guraso-gaitasunak eta, beste aldetik, guraso-trebetasunak.



4 Irudia. Guraso-eskumenen osaera

Barudy eta Dantagnanen arabera (2010), funtsezko guraso-gaitasunak, seme-alaben beharrei behar bezala erantzuteko eta haiekin harremanak izateko aukera ematen dieten gurasoek dituzten baliabide emozional, kognitibo eta jokabidekoak dira. Hortaz, guraso-gaitasun nagusiak hauek dira:

- *Seme-alabei lotzeko gaitasuna (atxikimendua):* gurasoek seme-alaben beharrei erantzunez, haiekin loturak sortzeko duten gaitasuna da, eta potentzial biologikoa, lotura-esperientziak eta seme-alabekiko loturak errazten edo oztopatzen dituzten ingurumen-faktoreek baldintzatzen dute.
- *Enpatia:* bestearen beharrak hautematean eta ulertzean datza. Beraz, haurren barne-munduarekin konektatu behar dute, eta emozio- eta keinu-adierazpenak eta haien beharrak ezagutu eta hauteman.

Guraso-trebetasunei dagokienez, erantzun zuzenak emateko eta garapen-aldira egokitzeko gaitasuna da. Honako hauek dira guraso-trebetasun horiek:

- *Hazkunde-ereduak:* belaunaldiz belaunaldi transmititzen diren kultur ereduak dira, eta gizartean eta familian ikasitakoaren fruitu dira. Familian, imitazioaren, identifikazioaren eta ikaskuntza sozialaren bidez ikasten dira normalean.
- *Sare sozialetan parte hartzeko eta baliabide komunitarioak erabiltzeko trebetasuna:* gurasoek jaso dezaketen familia- eta gizarte-laguntzari egiten dio erreferentzia, baita haurren zaintza sustatzen duten erakunde eta profesioaletan parte hartzeko eta laguntza eskatzeko gaitasunari ere. (Barudy eta Dantagnan, 2010: 34-51).

Rodrigo, Martín, Cabrera eta Máizquezek (2009) berriz, gurasotasun gaitu batek eduki beharko lukeen bost multzotan banatutako trebetasunak defendatzen dituzte. Multzo horietako bakoitzean guraso-gaitasun ona izateko kontuan hartu beharreko zenbait alderdi azaltzen dira:

- *Hezkuntzakoak:* harreman afektiboak izatea eta bere gaitasunak kontuan hartuta, lortutako lorpen ebolutiboak aitortzea; asmo onetan eta gaitasunetan konfiantza sustatzea eta bere portaera gainbegiratzea; estimulazioa eta ikaskuntza bultzatzea (motibazioa sustatzea, hezkuntza formalean inplikatzeko...); haurra den bezala onartzea, etab. Hau da, guraso-rola betetzeko gaitasun pertsonala eta barne-kontrola izatea.

- *Guraso-agentzia*: bikotearekin adostu seme-alabari transmitituko zaizkion hezkuntza-irizpide eta portaerak, guraso lanari, eskatzen duen denbora, ahalegina eta dedikazioa jartzea eta seme-alabaren ongizateari merezi duen garrantzia ematea.
- *Autonomia pertsonala eta gizarte-laguntza bilatzeko gaitasuna*: hezkuntza-zereginen inplikatzeko, adingabearen ongizatearekin arduratsua izatea, haurraren eta familiaren ikuspegi positiboa izatea, beharrezkoa denean laguntza eskatzen eta onartzen jakitea eta haren beharrak asetzeko baliabideak identifikatzea eta erabiltzea.
- *Bizitza pertsonalerako trebetasunak*: bulkadak kontrolatzea; asertiboak izatea; autoestimua, gizarte-trebetasunak eta estres-egoerei aurre egiteko estrategiak izatea; gatazkak konpontzen jakitea; hainbat zeregin eta erronkari erantzuteko gai izatea; bizitzaren plangintza eta proiektua izatea, eta bizitzaren, arazoaren eta krisien ikuspegi positiboa izatea.
- *Etxeko antolaketarako trebetasunak*: etxeko ekonomiaren administrazioa eraginkorra izatea; txukuntasuna eta garbitasuna mantentzea; guztion higieina eta osasuna ondo asetua egotea; janaria normalean osasuntsua izatea eta etxebizitza mantendu, eta beharrezkoa denean, konponketak egitea.

2.3. Gurasoentzako tailerrak

Helduei, ama edo aita izateko lan eta arduran aholkularitza eta laguntza emateko eta guraso-eskumenak identifikatzen eta ezagutzen laguntzeko, bai eta, seme-alaben eboluzio-etapari egokituz, horien erabilera egokia ere, Nafarroako Gobernuak “*Ayudar a crecer. Guía educativa para trabajar con grupos de padres y madres*” (2005) gidan, horiek lantzeko proposatutako jarduerak erreferentzia gisa hartuta, 3 eta 6 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoentzako tailer bat eskainiko da.

Tailerrak goiz bateko iraupena izango du, hau da, goizeko 9etatik 14:00etara, 30 minutuko atsedenaldira batekin. Maiatzaren 23an, larunbata, izango da; Orkoiengo Auzalar Ikastetxe Publikoko musika gelan. Lehen esan bezala, tailerra 3 eta 6 urte bitarteko eta eskolan matrikulatutak dauden edo matrikulatuak izango diren seme-alabak dituzten gurasoei zuzenduta dago. Ingurunea, familiarra, parte-hartzailea,

kooperatiboa eta konfiantzazkoa izan dadin, parte-hartzaileak eseriko diren aulkiak zirkulu bat osatuz jarriko dira. Proposamenekin hasi baino lehen ordu erdi batean tailerraren eta guraso-eskumenen inguruko aurkezpen txiki bat egingo zaie eta gero, bakoitza bere burua eta bere egoera (seme-alaba kopurua, hauen adina, etab.) aurkeztuko du.

Gai hau gurasoekin lantzea oso garrantzitsua da, beren seme-alabak dituzten behar aldakorrak asetu behar baitituzte; horretarako, beren zeregina ondo betetzeko, familiaren esparruan guraso-eskumenak garatu behar dira, seme-alaben garapen positiboa sustatuz eta erresilientzia garatzen lagunduz, esperientzien ondorioei aurre egiteko eta garapen pertsonala eta soziala sustatzeko (Barudy eta Dantagnan, 2010; Cánovas eta Sahuquillo, 2011; Rodríguez et al., 2006; Sallés eta Ger, 2011). Gainera, adingabea, bere oinarrizko premiak asetzeko gai den familia-testuinguru batean bizi bada, bere nortasuna (autokontzeptua eta autoestimua) eraikiko du, balio propioak berenganatuko ditu eta afektibitatea, autonomia eta heziera ona garatuko ditu. Horregatik, tailer honen bidez, gurasoei, guraso-eskumen horietako batzuk lantzea eskaini nahi zaie, baina, guraso gisa zalantzan jartzen ari zaiela sentiarazi gabe.

Hurrek, trebetasun asko eskuratzen dituzte bizitzako lehengo etapan; horregatik, oso garrantzitsua da gurasoek kalitatezko jarraibideak eta ereduak ematea, haurren gaitasun kognitiboan, jokabidean edota trebetasun sozialean eragin baitezake. Izan ere, gurasoek eragin handia dute bere seme-alaben portaera positibo eta negatiboetan. Bukatzeko, ez da ahaztu behar guraso-eskumenak belaunaldiz belaunaldi transmititzen direla; beraz, haurren zaintzaren kalitatea hobetzeko ahaleginak egitea garrantzia handia du.

2.3.1. 1.Proposamena

2.3.1. 1A ariketa

AMA EDO AITA GISA DUDAN ESPERIENTZIA

HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Bakoitzaren amatasuna edo aitatasuna bizitzeko modua onartzea. ▪ Amatasuna/aitatasuna hazkunde pertsonalerako erronka eta gogobetetze-iturri gisa ulertzea.
IRAUPENA	20 minutu
MATERIALA	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Papera ▪ Boligrafoa ▪ Arbela ▪ Arbelerako errotulkia
